

## Kirola

Ariznabarreta eta García favorito domekan Abadiñon jokatu den Bizkaiko Kros Txapelketan > 20



**JAIAK!**

BERRIZ



## Durangon eta Zornotzan gertatutako eraso sexistak salatzeke, mobilizazioak deitu dituzte

Gabonen bueltan eraso sexista bi gertatu dira Durangaldean. Lehenengoa Durangoko Murueta Torre auzoan gertatu zen, urtarrilaren 3an. Udalak publiko egin duenez, adin txikiko neska batek eraso jasan zuen. Plataforma Fe-

ministak elkarretaratzea egin zuen atzo eraso hau gaitzesteko. Zornotzan, berriz, urtarrilaren 6ko goizaldean emakume batek eraso jasan zuen. Mugimendu Feministak elkarretaratzea deitu du biharko, herriko plazan. > 4

*“Yemenen bizi duten egoera dramatikoa da. Giza krisi egoeran daude”*

Yemengo gerra lehen lerrotik ezagutzen du Meritxell Relaño durangarrak. Ia bi urtez dirauen gatazkan, Unicefeko bulegoko zuzendaria da. Larrialdietarako laguntza antolatzen dihardu, besteak beste. > 10-11



◆◆◆ Urte berri on! ◆◆◆



Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | [www.naturalkibelardenda.es](http://www.naturalkibelardenda.es)

### Durangaldea > 4

Babes ugari jaso du Sarek deitutako manifestazioak

### Durango > 3

Higiezinen zerga 0,335 izango da eta kaltetuak haserre daude

### Mañaria > 8

Hasi dira Mañariko kioskoa jolasgune bihurtzeko obrak

### Otxandio > 9

Martxoaren 30ean eta apirilaren 7an Korrika eskualdean izango da







# “Harrigarria egin zait udalean gauzak egiteko duten modua”

Durangoko Udalak hirugarrenez eztabaidatu du higiezin zergarako indizeen inguruan; indize altua 0,355ean kokatu, eta kaltetuak haserre daude



Abenduaren 29an egin zuten indizearen inguruko hirugarren bilkura.

**DURANGO** Markel Onaindia “Harrigarria egin zait udalean gauzak egiteko duten modua. Ordenantza bat hiru aldiz aldatzea ez da normala, eta uste dut jakin barik ibili direla gauzak egiten. Zelan bozkatu dute ia jakin barik?”. Josune Escotaren

berbak dira, higiezin zergarako ezarritako indize altuaren kaltetuak batenak. Salatu du ez dutela informaziorik eduki, eta auzitegira eta Arartekoarengana jotzea ez dute baztertzen.

Indize orokorra 0,2koa da, eta altua –Aldundiak 180.000 eu-

rotik gora baloratu dituen 358 etxetan– 0,355ekoa. Ondorioz, Ondasun Higiezin Zergan dezentze gehiago ordaindu beharko dute 2017an. Durangoko Udalak hirutan eztabaidatu du indize bereziaren inguruan. Ekainean, 0,5ekoa ezarri zuen 140.000 euro-

tik gora baloratutako etxeetan. Azaroan, langa 180.000 eurora igo zuten, EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk akordioa egin ostean. Baina kaltetuen haserrearen aurrean, berriro moldatu zuten abendu amaieran. Kaltetuek, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak 0,29ko indizea proposatu zuten; EAJk eta PSE-EEk 0,37koa, eta PPK 0,355ekoa. Hauxe onartu zen, jeltzaleen eta sozialisten babesa jaso zuelako.

## Kaltetuen haserre

Indize altu horregaz ez daude ados plataforma bat sortu duten kaltetuak, Tabira, Galtzaretza eta Santikurutz auzoetakoak, besteak beste. “Tasa honegaz datoz, dirudunak izango bagina moduan, eta hori ez da horrela”,

“Espainian indize hori debekatuta dagoela ikusita, adarjotzea ematen du honek”

azaldu du Escotak. Gogoratu du bakoitzaren etxeak ez duela zerikusirik zuzenik errentagaz. “Batzuek seme-alaba asko dituztelako erosi dute etxe hori; baina ze soldata daukate?”, ohartarazi

du. Indize hori barik ere gehiago ordainduko zutela dio; gainera, bere auzunearen kasuan, Tabiran, zaborren tasa bi ordaintzen dituzte, eta garajeagatik derri-gorrezko kuota bat ere bai.

Horrez aparte, indizearen 180.000 euroko langan saltoa dagoela kritikatu du Escotak. “179.999 euroko balioa duten etxeetan 366 euro ordainduko dituzte; 180.000koetan, 900 euro baino gehiago”.

## 13 herritan soilik

Orain arte, etxeei ezin zitzaizkien indize alturik ezarri, guztientzat berbera zen, baina Aldundiak hori aldatu du, eta Bizkaia osoan 13 herritan ipini dute. Escotaren arabera, Espainiako legedian debekatuta dago. “Guk pilo bat ordainduko dugu, eta Espainian indize hori debekatuta dagoela ikusita, adarjotzea ematen du honek”, kexatu da. Dioenez, Berangon, adibidez, 2 milioi euroko balioan ipini dute indizerako langa, ez 180.000 eurotan.

Escota ez dago gustura udalean emandako prozesuagaz. “Sentsazio txarra geratu zait, politika ez ulertzearena”, adierazi du. Hala ere, alderdiekin berba egiten jarraitzeko asmoa dute, eta politikariek ere borondate hori erakutsi dutela dio.



Batez besteko kontsumoa 4,4-5,0 (l/100 Km) eta CO<sub>2</sub>-a isurtzea 114-127(g/Km).

## Clase C Estate, hilean 295 €\* 48 kuotatan. Plan ezin hobea.

Mendia, hiria, hondartza, herria. Zergatik aukeratu? Aurki ezazu C 220 d Berriak daukan diseinu erakargarria eta xarmagarria, teknologia berritzailea eta zure plan guztiak bikainak izateko askatasun handia ematen dizun tokia. Zuretzat da Sportive AMG paketea daukana, hilean 295€-ren truke, 48 kuotatan (sarrera 9.727,02€, azken kuota 22.610,50€\*\*, ITN %6,70, UTB %7,93). Eta goza ezazu Fidelity Zerbitzua, hilean 40€-ren truke\*\*\*.

- Garmin MAP PILOT nabigatzailea
- Kiroi-akabera AMG Line kanpokoa
- AMG 18"ko aleaziozko hagunak
- 9G-TRONIC abiadura-kaxa automatikoa

\*Finantzaketa-adibidea: Clase C 220 d Estate 9G-TRONIC aldaketa automatikoa eta AMG SPORTIVE paketeduna. J.P. 39.330€ (zergak eta garraioa barne. Aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A.-ren Alternative programari esker, Bruselas Etorbidea 30, 28108 Madril. Baliozkoak: 2017/01/31ra arte onartutako eskariak, kontratua indarrean eta 2017/03/31ra arte matrikulatutako ibilgailuak. Bezeroak, stzera egiteko 14 eguneko epea du. Finantziatu beharreko zenbatekoa 29.602,98€. Hilean 295€, 48 kuotatan, azken kuota 22.610,50€, sarrera 9.727,02€, ITN %6,70€, zabalte-komisioa 885,13€ (€2,99), UTB %7,93. Guztira ordaindu beharreko zenbatekoa 37.655,63€. Guztira epeko zenbatekoa 47.382,65€. Baliozko eskaintza 20.000Km/urtean. \*\*Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratua baldintzak betez gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. \*\*\*Ibilgailuak barne hartzen du: 3 urteko bermea eta 5 urteko mantentze osoa 100.000 Km egin arte (plezen higadura barne, pneumatikoak ezik). Argazkiko modeloa ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).

**Mercedes-Benz**

The best or nothing.



**AGUINAGA**

Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra  
info@aguinaga.es · [www.aguinaga.es](http://www.aguinaga.es)

Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3  
48340 ZORNOTZA  
Tel.: 94 630 17 47





Durangoko Plataforma Feministak Andra Marian egindako elkarretaratzea.

## Durangoko eta Zornotzako erasoak gaitzetsi dituzte

Adin txikiko neska batek urtarrilaren 3an eraso jasan zuen Murueta Torren; Zornotzan, urtarrilaren 6an emakume bati egindako eraso gaitzetsi du udalak

**DURANGALDEA** J.D./J.G.

Durangon eta Zornotzan gabonetako egunen bueltan eraso sexista bi gertatu zirela publiko egin zuten atzo herri hauetako udalak.

Durangoren kasuan, adin txikiko neska batek eraso sexista jasan zuen urtarrilaren 3an, Murueta Torren, Durangoko Udalak jakitera eman duenez. Era berean, udalak babesa eman die eraso jasandako gazteari eta bere familiari, instituzio honek dituen baliabide oro beraien esku jarrita. Udalak herritarrei dei egin die Plata-

forma Feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko. Atzo, elkarretaratzea egin zuten Andra Marian. Hitzordu horretan, Durangoko erasoaz gaine-

Zornotzako eta Durangoko mugimendu feministek mobilizazioak deitu dituzte

ra, asteen Portugaleten hildako emakumea gogora ekarri zuten. Horrez gainera, Durangoko

Udalak datorren eguneko elkarretaratzean ere parte hartzeko deia egin du.

**Zornotzako eraso**

Zornotzan, urtarrilaren 6ko goizaldean emakume batek eraso jasan zuen. Zornotzako Udalak bozeramaile batzordean eraso "irmoki arbuiatzen" duen adierazpen instituzionala onartu eta publiko egin du.

Era berean, gertatutakoa salatuz, Zornotzako mugimendu feministak elkarretaratzea deitu du biharko, 11:00etan, Zornotzako Herriko Plazan.

## Babes ugari jaso du Sarek deitutako manifestazioak

**DURANGALDEA** J.G./M.O.

*Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean, manifestazio nazionala deitu du biharko Sare mugimenduak. Arratsaldean, 17:30ean, hasiko da mobilizazioa, Kasilla plazatik. Partaideek *Salatzen dut* mezua islatzen duten kartulinak eramango dituzte; izan ere, euskal presoaren eskubideen aldeko taldeak egoera kritikatu du.

Sareko kideek manifestazioarako deia egin dute herririk herri, dinamika eta iragarkien bidez. Ondorioz, babes ugari jaso du ekimenak. Durangon, esaterako, giza-katea osatu zuten joan zen zapatuan. Gainera, bideo bat ere argitaratu dute, eta aurpegi ezagun ugari ikusi dai-

tezke bertan: kultur eragileak, hezkuntza arloko langileak, gazteak, feministak, sindikatuak, alderdi politikoak... Elorrion eta Abadiñon ere hainbat herritarrek babesa erakutsi diote deialdiari bideo bidez.

Iurretan, bestalde, azkenaldian modan dagoen *mannequin challenge* estiloko grabazioa landu dute.

**Kalera, Kalera**

Gabon bueltan ez da Sare bakarrik izan preso gaia azalera-tu duena. Preso ohiek Kalera, Kalera izeneko dinamika landu dute eta, besteak beste, joan zen domekan kultur ekitaldia egin zuten Plateruenean, eskualdeko sortzaile ugarigaz.



Durangon argazkia atera zuten giza-katea egin eta gero.

**ibaizabal**  
IKASTOLA

### DOAKO IKASTAROAK 2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA

Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio teknikoa HOBETUZ ikastaroa	60 ordu	2017/01/24
Ur eremu naturaleko sorospena LANBIDE ikastaroa	180 ordu	2017/03/28

ESKAINTZA IREKIA

Psikomotrizitatea nagusientzat HOBETUZ ikastaroa	20 ordu	2017/01/19
---	---------	------------

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA

Tel.: 94 621 58 77  
ikastaroak@ibaizabalikastola.eus  
www.ibaizabalikastola.eus

**ibaizabal**  
IKASTOLA

**Lanbide**  
Euskal Erretziaren Zerbitzuak  
Servicio Vasco de Empleo

**HOBETUZ**  
Euskal Erretziaren Zerbitzuak  
Servicio Vasco de Empleo

**IKASTOLA**  
Euskal Erretziaren Zerbitzuak  
Servicio Vasco de Empleo

## A-8ko bidesaria %2 igo da urte berriagaz

Ez dute hilean 30 eurotik gora ordaindu beharko

**DURANGALDEA** J.G./M.O.

Aurten berriro ere gora egin du A-8 autobideko bidesariak.

Iazko gorakadaren ostean, zalaparta piztu eta bidesariaren aurkako plataforma sortu zen.



Iurretatik Bilborako bidaia 2,22 euro kostatzen da orain.

Bada, 2017an %2 igo da tarifa; esaterako, Iurretatik Bilbora joateko 2,18 euro ordaindu behar ziren iaz, eta orain 2,22 izango da prezioa.

Iazko protesta eta eztabaiden ostean, Aldundiak diru-laguntza proposamen berria aurkeztu zuen urte berriari begira. Horrela, laguntza eskatuz gero, gidariek ez dituzte 30 euro baino gehiago ordainduko hilean AP-8a, Hegoaldeko saihesbidea eta Artxandako tunela erabiltzeagatik. Bizkaian bizitzea eta ordaintzeko Via-T gailua erabiltzea dira laguntza eskatzeko baldintzak ([www.interbiak.bizkaia.eus](http://www.interbiak.bizkaia.eus)). Gidariek normal erabiliko dute autobidea, eta hile amaieran deskontua egingo diete, 30 eurotik pasatuz gero.

**Protestarako karabana**

Bestalde, AP-8 Peajerik Ez plataformak protesta egingo du bihar, Durangotik Ermuarainoko karabana batez. Dagoeneko 20.000 sinadura lortuta, gaur Ermuan batuko dituzte.





Zornotzan joan zen asteburuan egindako agerraldia kultur eta kirol elkarteetako kideekin batera.

## Hainbat kultur eta kirol elkartetako kideek babesa erakutsi diote herri galdeketari

Maiatzaren 7ko herri galdeketagaz bat datozela adierazi dute adierazpen bateratu baten bidez

**ZORNOTZA** J.Derteano

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamikak sustatuta, Euskal Herriko estatus politikoaren gaineko herri galdeketak egingo dituzte Zornotza, Durango, Elorrio eta Abadiñon, maiatzaren 7an. Bide horretan, galdeketaren aldeko indarrak batzen dabilta. Zornotzan, esaterako, agerraldia egin zuten, joan zen asteburuan, herri galdeketa babesten duten Zornotzako kultur eta kirol el-

karteetako kideek lagunduta. Horiek denak batzen dituen adierazpena ere jakitera eman zuten. "Bizkaiko herri askotan bezala, Zornotzan ere antolatuko den herri galdeketagaz bat gatzozela adierazten dugu", jasotzen du adierazpenak. "Aldi berean, dei egiten diegu herritar guztiei, Zornotzan erabakitze eskubidea praktikara eramateko izango dugun hitzordu horretan parte har dezagun, askatasun osoz, bakoitzak geure botoa

emanen". Galdeketa egunera arteko bidea "zabala, gardena eta anitza" izatea gura dutela diote.

Bestalde, Zornotzako Gure Esku Dago elkarteko kideak herri galdeketaren aldeko sinadurak batzen dabilta. Urtarrilaren 15ean Nafarroa kalean, urtarrilaren 22an Ogenbarrenan eta urtarrilaren 29an Izerren galdeketaren aldeko sinadurak batzen egongo direla jakinarazi dute. Horrez gainera, otsailaren 4an, Santa Ageda egu-

nean, talo jana egingo dute Pike Parkean.

**Abadiñon sinadurak batzen** Abadiñon ere sinadurak batzen dabilta. Abadiñon, eguenero, 18:00etatik 19:00etara, galdeketaren aldeko sinadura emateko aukera dago elkarteak Trañae-txoste kalean duen lokalean. Era berean, eguenero batzar irekiak egiten dituzte 19:00etatik aurrera, eta gura duten abadiñar denak bertaratu daitezke.

**Elorrioren galdera erabakita** Elorrioren laster jakinaraziko dute sinadura bilketa noiz hasiko den. Bitartean, prozesu parte-hartzaile baten bidez, maiatzaren 7ko galdeketa elorriarrei egingo dieten galdera erabaki dute. Honako hau da: *Euskal Estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu?*

Gure Esku Dagoren atarkiagaz Euskal Herriko 140 bat herritan egingo dituzte herri galdeketak 2017an zehar, hiru egunetan banatuta. Maiatzaren 7koa izango da nagusia. Egun horretan, Durangaldeko herriez gainera, besteak beste, Debabarrena, Lea Artibai, Uribe Kosta eta Urola-Kosta eskualdeetako hainbat herritan egingo dira galdeketak.

## Udaltzainei saria txakurrak erreskatatzeagatik

Animaliak babesteko sentsibilitatea eskertu diete

**ZORNOTZA** M.O.

Zornotzako Udaltzaingoak sari bat jaso du animaliak babesteko egindako jarduketak bategatik. Saria Animalien aurkako Indarkeriaren Behatokiak ematen du, eta aurtengoa izan du lehen edizioa. Zornotzako bi agentek egindako esku-hartze bategatik

eta animalien aurkako tratu txarren ustezko delitu baten atestatu judizialaren instrukzioa egiteagatik jaso dute saria. Hain zuzen, etxebizitza batean beharrezkoa den oinarrizko arretarik gabe abandonatutako bost txakur eta bi txakurkume erreskatatu zituzten.

## Saharara bidaltzeko material bilketa martxan dago

Urtarrilaren 20ra arte egingo dute material bilketa

**BERRIZ** M.Z.

Sahararen Aldeko Euskal Karabanaren hamahirugarren ediziorako material bilketa egiten dabilta Berrizen urtarrilaren 9az geroztik.

Material bilketa honen antolatzaileek jakitera eman dutenez, sahararren errefuxiatu

kanpamentuetara bidaltzeko janari eta materiala datorren barikura arte, urtarrilak 20, batuko dituzte herriko zenbait gunetan. Tindufera (Aljeria) bidaliko duten materiala Berrizko puntu hauetan guztietan utzi ahaliko dute herritarrek: udaltxean, herriko hainbat denda-

tan eta ikastetxeetan.

Ekimenaren bultzatzaileek adierazi dutenez, pasta, arroza, azukrea, hegaluzea oliotan, garbantzuak, dilistak, babak eta konpresak dira egun hauetan batu gura duten materiala.

Berrizen bezala, Durangaldeko beste hainbat herritan ere Saharara bidaltzeko materiala batzeko kanpainak jarri dituzte martxan. Ekimen honeguz, Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetako kideei laguntza ematea helburu dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

**hitz** #gomendioak  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

**HELDUENTZAT ETXEA**  
Xamar (2016)

**UME ETA GAZTEENTZAT ALTZOKO ERRALDOIA**  
Fernando Torrecilla (2016)

**MUSIKA GOIAZEN**  
Askoren artean (2016)

**BIODANTZA TAILERRAK ELORRION**

**HILERO BI OSTIRALETAN**  
Txintxirri Ikastola  
18:00 - 21:00

Bideratzailea:  
**Mentxu Arjonilla**  
Irakasle tituluduna  
626 661 292  
mentxubiodanza@hotmail.com

**ATERPE** ARROTZAN  
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar  
635 74 84 65  
www.carpinteriaaterpe.com

Ander Maiztegi  
655 73 75 51



# Inbertsio handienak, Ibarra eta Belengua kaleak konpontzeko

EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen botoekin onartu dute aurrekontua



EAJ abstenitu egin zen aurrekontuaren bozketan.

**ELORRIO** M.O.  
7 milioi pasako aurrekontua edukiko du Elorrioko Udalak 2017rako, eta horietatik 610.000 euro inbertsioetarako izango dira. Azken osoko bilkuran onartu zuten plana, EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz. Gobernu taldearen esanetan, “aspalditik” konpontzeko beharra duten Belengua kalearen eta Ibarra auzoko espaloiaren urbanizazioa dira inbertsio nagusiak.

Bestelako egitasmoen artean, eskolako leihoak aldatzeko zein Musika Eskolako komunak berritzeko 67.000 euroko partida bideratuko dute, eta Argiñetako basilizaren teilatua konpontzeko 50.000 euro aurreikusi dituzte. Pilotalekuan aldagelak eraikiko dituzte, eta Arriolan teilatua konpondu ere bai.

**Abstentzio kritikoa**  
EAJk gobernuaren gestioa kritikatu du, baina abstentzioa negoziaketengatik eman du.

Adibidez, zergak ordaintzeko laguntzak 2.500 eurora igotzeko, jeltzaleen ideia onartu du gobernuak. Baina, EAJren ustez, EH Bildu “maila baxuko kudeaketa” egiten dabil. Hainbat egitasmo “egin barik” geratu direla dio, herri ortuena edota enplegu planarena. Pulla-Azkarretako plana bultzatzea ere gura du.

Gainera, partaidetza prozesuan parte hartzeko aukerarik ez dutela izan salatu du, eta herritarrek “zerrenda itxi” batetik aukeratu dutela.

## Jon Ander Graciak utzi egingo du zinegotzi kargua

**ELORRIO** M.O.  
EH Bilduko Jon Ander Graciak zinegotzi kargua utziko du, eta Txus Arrietak hartuko du bere lekua, eguaztenean prentsaurrekoan azaldu zuten bezala. “Lan arrazoiengatik gainezka nago, eta ikusi dut ezin dudala arduraz bete”, esan zuen Graciak. Hala ere, gobernuak “indartsu” ikusten du. Idoia Buruaga

alkateak adierazi zuen Gracia “lankide eta zinegotzi bikaina” izan dela. Guztira, ia 6 urte eman ditu, 2 gobernuan.

Txus Arrieta euskara teknikaria da Arabako aldundian, eta udalean euskara, hezkuntza eta gizarte ekintza arloak hartuko ditu. Graciaren ukoagatik Buruaga arduratuko da ogasunaz, eta Xabier Dominguez auzoez.



Arrieta eta Gracia, eguaztenean.

## Kontseiluak biltzea eskatu diote gobernuari

Eskari formala aurkeztu du EH Bilduk, udalean

**ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Komunikabideetara bidali duen oharrean azaldu duenez, udal kontseiluak martxan jartzeko eskari formala aurkeztu du, asteon, EH Bilduk, udalean. Kontseilu horiek herritarren parte-hartzea bultzatzeko tresna garrantzitsuak direla deritzo koalizioak, eta, azaldu dutenez, eskaria hainbat osoko bilkuran egin eta erantzunik ez dutelako jaso erabaki dute eskakizun formala aurkezteko. Hiru puntuko gai ordena proposatu du EH Bilduk. Honakoak dira kontseiluetan parte hartzen duten herritarrekin EH Bilduko kideek jorratu gura dituzten gaiak: kirol eta kultur taldeen diru-languntzak, udalaren kirol eta kultur eraikinen araudiak eta kide berrien izendapena.

EH Bilduk kritikatu du duela bost urte martxan jarri zirenetik, gobernu taldeak birritan

baino ez duela kontseiluetara deitu —2012an onartu zuten kontseiluen arautegian, urtean gutxienez lautan bildu beharra dagoela zehaztu arren—.

### “Tresnak herdoiltzen”

“Ez dugu ulertzen gobernu taldeak zelaz uzten dituen mota honetako tresnak herdoiltzen eta baliogabetzen”, adierazi du EH Bilduk asteon komunikabideetara bidali duen oharrean. “Are gutxiago”, dio koalizioak, “aspaldi honetan dauden arazoekin: araudirik ez delako landu Traña-Matienako erabilera anitzeko guneko rokodromoa ez dagoenean erabilgarri, edo herriko hainbat elkarte diru-laguntzak atzerapenagaz jositzen ari direnean”. Elkarrekin beraie esparruko gaietan lan egiteko foro iraunkor gisa, kontseiluak tresna baliagarriak direla uste du EH Bilduk.

## Lehiaketara atera dute Matienako garbiketa

Martxora arte jasoko ditu udalak proposamenak

**ABADIÑO** I.E.  
Abadiñoko Udalak lehiaketa publikora atera du Traña-Matienako auzoko eta industrialdeetako garbiketa zerbitzua, eta martxora arte aurkeztu ahalko dituzte enpresek beraie proposamenak. Azken urteetan lan hori burutu duen Cespa enpresari egindako esleipena eta legez egin zitezkeen bi kontratu luzapenak ere agortu dira, eta ezinbestean atera behar izan du udalak zerbitzua lehiaketara.

Abadiñoko Independenteen eta EAJren botoekin onartu zuten, udalaren abenduko osoko bilkuran, garbiketa zerbitzua esleitzeko baldintza-agiria pu-

blikatu eta lehiaketa abiatzea. Kontrako botoa eman zuen EH Bilduk. 2010ean garbiketa zerbitzua enpresa bati esleitzea erabaki zuten bezala, azpikontratazioaren kontrako jarraia adierazi zuen EH Bilduk. Zerbitzu publikoen aldeko aldarria egin zuen Mikel Urrutia EH Bilduko bozeroaleak, udalaren gardentasuna bermatzeko eta “entxufismoa” ekiditeko modurik onena dela defendatuz.

“Lehenago ere hainbat aldiz izan dugu ika-mika hori, eta ez noa berririo eztabaida horretan sartzerara”, adierazi zuen, aldiz, Jose Luis Navarro alkateak, eztabaida saihestuz.

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**  
**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**Arriete**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017





**RENAULT**  
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

# GAURSA OCASIÓN

## ESPAZIO ZABALA

### BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



**RENAULT**  
**OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

**GAURSA**

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)



**ZALDIBAR** J.Guenetxea  
Zaldibarko udalbatzak 2017ra-ko 2.882.287,75 euroko aurrekontua onartu zuen abenduko osoko bilkuran. Iaz baino 95.000 euro gehiago aurreikusi ditu. EH Bilduk azaldu zuenez, 27 urtean lehenengo aldia da aurrekontuak urtea hasi orduko—abenduan—onartzen dituztela. Koalizioak inbertsioak egiteko ezintasuna nabarmendu zuen, Udalkutxara itzuli beharreko 147.000 euroak gogora ekarriz.

Orain arte, 200.000 euro inguru inbertsioetarako erabili izan dituztela azaldu du koalizioak. Iaz 136.000 euro izan zituzten. Udalkutxari 147.000 euro itzul-tzeak inbertsioetan eragin zuena izan duela azpimarratu du Arantza Baigorri alkateak. Herri inbertsioak egiteko beha-

Inbertsioen atalean  
30.000 euro aurrekontu  
parte-hartzailerak  
bideratuko dituzte

rrizana badagoela gaineratu du. “Kultur Etxe bat behar dugu, bertan ekitaldiak antolatu ahal izateko. Frontoiko eta kiroldetik teilatuek ere konponketa behar dute”, Baigorri alkatearen berbetan.

## Inoizko diru-atalik baxuena izango dute inbertsioetarako

Udalkutxara itzuli beharreko diruak inbertsioak baldintzatu dituela diote



Abenduaren 27an egindako osoko bilkuran 2017rako aurrekontuak onartu zituzten.

Aurrekontuen eztabaidan PSE-EE eta EAJ abstenitu egin ziren. PSE-EEren arabera, Zaldibarko Udala Udalkutxaren esku dago eta ez du inbertsio handirik egiteko aukerarik. Bestalde, Alberto Aranzibia EAJko zinegotziak azaldu duenez, aurrekontuetan jeltzaleek abstenitzea erabaki dute “auzoak

ez direlako kontuan hartu”. Baigorri zinegotzi jeltzaleari erantzun zionez, Eitzagan ETS eta Interbiaken proiektuaren inguruan informazio gehiago izan arte udalak ezingo du esku hartu. Olarreagan eta Zallabenten, berriz, hobekuntzetako batzuk Elizak egitekoak direla dio Baigorri alkateak.

Inbertsioetako 98.000 euro horietatik, 30.000 aurrekontu parte-hartzaileetara bideratuko dituzte. Baigorri alkateak azaldu duenez, dagoeneko batzar bat egin dute herritarrekin eta proposamenak jaso dituzte. Urtarrilaren amaieran bigarren batzarra egingo dute proiektuak zehazteko.

## Euskaraz hitz egiteko motibazio tailerra Kontzejuzarren

**MALLABIA** J. Guenetxea  
Mallabiko Udalak, UEMAgaz batera, euskararen erabilera sustatzeko motibazio tailerra antolatuko du bihar. Udal arduradunek azaldu dutenez, kezkatuta daude Mallabiko euskaragaz. “Euskara gutxi egiten da. Uste dugu arrazoi asko daudela euskaraz egiteko

Inguruan erdara oso hurbil duten pertsonen bideratutako tailerra izango da, bihar

eta horiek ikusaraztea eta ez ahaztea da tailer honen helburua”, diote udaletik.

Inguruan erdara oso hurbil duten pertsonen bideratutako tailerra izango da. Euskaldun berriak, guraso erdaldunak dituztenak, koadrilan erdaraz hitz egiten dutenak... Horiei gutxi zuzenduta dago berbaldia. Tailerra saio bakarrekoa izango da, bihar, zapatuan, 11:00etatik 13:00etara, Kontzejuzarren.

## Errematagaz San Anton eguna ospatuko dute Garain

**GARAI** M.O.  
Urte luzeetako tradizioari eustea sarri ez da erraza izaten, baina Garaiko Errematara ez dute hutsik egiten herritarrek eta inguruetakoen enkante zaleek. Martitzenean ere hantxe batuko dira, Elizabarriko aterpean, baserrietako produktuak lortzeko apustu egiteko. Batuko den diruaren erdia Caritasi emango diote, eta gainerakoa parrokiako gastuetarako izango da. Erramatagaz gainera, nagusien elkartekoek bazkaria egiteko aprobetxatuko dute. Herriko tabernan batuko dira.

San Anton egunari 12:00etan emango diote hasiera, Elizabarrin, mezagaz. Ostean, abadeak lurra bedeinkatuko ditu, eta enkanteari ekingo diote. Baserriarrek eramandako produktuak lortzeko aukera egongo da: txorizoak, barazkiak, esnea, pastelak, arrautzak... Lazaro Milikuak gidatuko du enkantea.

## Hasi dira Mañariko kioskoa jolasgune bihurtzeko obrak

**MAÑARIA** Markel Onaindia  
Txirristak, sokak, tirolina... jolasteko osagai ugari edukiko ditu laster Mañariko plazako kioskoak. Gainera, itsasontzi itxura emango diote; beraz, herriko pirata txikiak jolasgune berria edukiko dute. Obrak abenduaren erdialdean hasi ziren, eta epea guztiz zehaztuta ez badago ere, Endika Jaio alkateak esan du urtarrilean zehar amaitzea espero dutela.

2016ko udal aurrekontuan jasotako egitasmo esanguratsue-

netakoa da kioskoarena. Herriko hainbat umegaz partaidetza prozesu bat landu zuten, euren nahi eta beharrez ezagutzeko. Jolasteko leku gehiago edukitzea izan zen ondorio nagusia, eta horri erantzunez dator kioskoa birmoldatzeko ideia. Udalak 85.000 euro gorde zituen inbertsiorako, Aldundia- ren 24.000 eurogaz.

Bestalde, kiosko inguruan lehendik zegoen jolasgunea berritu dute, egurrez egindako txin-txaunak ere ipini dituzte.



Lanak urtarrilean zehar amaitzea aurreikusi dute.

## Informatika ikastaroan parte hartzeko izen-ematea hasi dute

**IZURTZA** J.Derteano  
Izurtzako liburutegian dagoen KZgunean informatika ikastaroak eskainiko dituzte martxoaren 1etik 14ra. Horietan parte hartzeko izen-ematea urtarrilean zehar egin beharra dago.

Martxoaren 1etik 14ra izango dira; eskaintza osoaren berri herriko liburutegian jaso daiteke

Informatikaren arloko askotariko ikastaroak parte-hartzaile bakoitzak duen ezagutza mailaren arabera banatuko dituzte. Liburutegian jaso daiteke eskaintza osoaren berri, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:30era. Martxoko ikastaroak astegunetan 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango dira.

## Gazteei begirako eskaintza berria abiatuko du Marixurriek

**ATXONDO** J.Derteano  
Marixurriek aisialdi taldeak gazteei begirako eskaintza berria atontzen jardun du azken hileetan, eta datorren astetik aurrera martxan jarriko dute. Eskaintza osatzeko prozesu parte-hartzaile bat ireki zuten herriko gaztetxoaren gura-soekin eta bestelako eragile

Hainbat hileko prozesu baten ostean osatu dute aurrera begirako proiektu berria

batzuekin hartu-emanetan jarri, eta orduan jasotako iritziak aintzat hartu dituzte proiektu berria osatzeko orduan. Disenatutako proiektu berria datorren astean zehar herritarren aurrean aurkezteko asmoa dute Marixurrieko kideek.



# Apirilaren 7an Durangaldeko hainbat herri zeharkatuko ditu 20. Korrikak

Zornotzatik sartuko da Durangaldean 17:00 inguruan eta Mallabiatik irtengo da



Durango, Berriz, Zaldibar eta Mallabia herrietatik ere ibiliko da aurten Korrika. Asier Arroita

**OTXANDIO** Joseba Derteano Martxoaren 30ean Otxandion hasiko da 20. Korrika, eta asteon ibilbide osoaren berri eman dute. Otxandiotik Gasteizerako bidea hartu ostean, apirilaren 7ko arratsaldean igaroko da berriro Durangaldetik.

Galdakaotik Zornotzarako bidea eginda sartuko da Korrika eskualdean, apirilaren 7an, 17:00etan. Handik Durangora

eta Elorriora joango da. Durangaldea utzi aurretik, Berriz, Zaldibar eta Mallabia ere zeharkatuko ditu, eta Ermuarantz joango da.

**Otxandion batzarra, gaur** Otxandioko herritar talde batek deituta, Korrikaren inguruko lehenengo herri batzarra egingo dute gaur, 19:00etan, kultur etxean. "Herriarena da euskara,

Korrika bezala herritik sortua, eta herri osoak parte hartzeko aukera eduki dezan gura dugu", adierazi dute gaurko batzarre-rako zabaldu duten deialdian. Otxandio euskaldun batean sinesten dutenentzat "momentu historikoa" heltzearela diote, eta horrela, "merezi duen" neurriko hasiera ekitaldia antolatuko gura dute ahalik eta herritar gehien laguntzagaz.

## ORDUTEGIA

### Martxoak 30

• 17:00 Otxandio.

### Apirilak 7

• 16:59 Zornotza.

• 18:46 Durango.

• 20:15 Elorrio.

• 21:00 Berriz.

• 21:29 Zaldibar

• 21:55 Mallabia.

## Taxi-auzunerako txartela berritzera deitu dute

**IURRETA** Aitziber Basauri

Urtarrilaren 31 baino lehen berri egin beharko dute txartela Taxi-auzune zerbitzuaren erabiltzaileek. Hala jakinarazi dute udal arduradunek. Izan ere, otsailaren 1etik aurrera, Iurretako Udalak emandako erabiltzaile txartel berria aurkeztu beharko zaio taxi-gidariari.

Hiriguneko zerbitzuak baserrialdeetara hurbiltzeko, eta "norbere ibilgailuaren erabilera arrazional bat sustatzeko" jarri zen martxan Taxi-auzune zerbitzua, 2009an. Aitzindari izan zen Durangaldean, eta herritarren artean "arrakasta" lortu duela diote udal ordezkariak. Iaz, 2.233 bidaiak egin ziren zerbitzu horren baitan: hilero 203 bidaiak, batez beste (11 hilean). Ildo horretan, diotenez, "Iurretako edozein bizilagun hirigunetik baserrialdeetara edo alderantziz taxi bidez joateko zerbitzuak aurrera jarraituko du herritar guztien onurarako izaten bada, momentu honetan izaten ari den bezala".

Astelehenetik zapatara eskaintzen dute zerbitzua: aste barruan, 07:30etik 20:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara. Bidaiak euro bi balio ditu. Kontakturako telefonoa honako hau da: 688 618 690.

## DURANGALDEA ASTEON

### Berri Otxoa kaleko sarbide berria, martxan

**ELORRIO** > Oinezkoen lehentasuna indartzeko ipini du udalak sistema berria martxan. 09:30etik 13:00etara herritar orok egin ahaliko ditu zamalanak Berri Otxoa kalean. Sarbidea kameren bidez kontrolatuko dute, eta urtarrilean zehar isunik ipiniko ez duten arren, abisuak utziko dizkiete araua urratzen duten gidariei.

### 7.600 lagun ibili dira Durangoko izotz-pistan

**DURANGO** > Iaz baino 1.100 erabiltzaile gehiago ibili dira, aurten, Landako Guneko izotz-pistan (7.600 guztira). Durangoko Udalak balorazio positiboa egin du ekimenaz, eta gobernu taldeak jakitera eman duenez, baita erabiltzaileek ere: 9.4ko nota ipini diote izotz-pistari. Gabonetan 13 egunegon egon da zabalik.

### Irakur-lagunak saioen izen-ematea, zabalik

**IURRETA** > Umeekin irakurketaz gozatu eta literaturzaletasuna transmititzeko baliabideak eskainiko dituzte, Bibliotekak martxan jarri duen Irakur-lagunak ekimenean. Saroa Bikandik gidatuko ditu saioak. Udalaren webgunean eskuratu daiteke informazioa, eta bertan deskargatu daiteke izen-emate orria ere.

### Telefono bidezko iruzurren salaketa

**DURANGALDEA** > 668649062/63 telefono zenbakien dei galduei erantzutean, grabazio bidez 200 euroko kargua egingo zaiola jakinaraziko zaio deitu duenari, bidaliko zaion pakete bategatik. Gastua ezeztatzeko, 807 zenbakiagaz hasten den telefono batera deitzeko eskatzen dute. Durangaldean mota honetako hainbat iruzur dei egiten ari dira.

## IRITZIA

**astekaria@anboto.org**  
astekaria 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

## Gutuna

Badajozeko espetxean gauden euskal preso politikoei, abenduaren 10etik urtarrilaren 8ra bitarte Usurbilen burutu den 'KALERA, KALERA,' ekimenarekin bat eginez idatzi hau ahalik eta jende gehienari iristaraztea erabaki dugu. 2016ko urtean zehar honako ekimenak burutu ditugu espetxean: • Otsailaren 17an eta 18an itxialdia burutu genuen gaixorik dauden preso askatasuna eskatzeko, eta otsailaren 20an arrazoi beragatik baraua egin genuen. Bi eguneko itxialdiagatik espetxeak zigorra jarri zigun. • Azaroaren 18an, espetxeak banatzen duen janariari uko egin genion, gaixo dauden presoek pairatzen duten egoera salatuz. • Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela baliatuz, baraua egin genuen, dispertsioak gure senide eta lagunengan eta gudan dituen ondorioak salatuz. • Urte osoan zehar, hilabeteko 3. ostiralean, espetxeak banatzen duen janariari uko gin diogu, kolektiboko kide askoren aurka

jarri diren zigor neurrigabeak salatuz. • Urte osoan zehar, hilabeteko azken ostiralean, gure senide eta lagunek herrietan presoan alde burutzen dituzten ekimenekin bat eginez, espetxeak banatzen duen janariari uko egin diogu. • Urtarril honetan ere, 14-15eko asteburuan, presoan eskubideen alde burutuko den manifestazioarekin bat eginez bisitaldien greba burutuko dugu. • Honetaz guztiaz gain, espetxe egunerokotasuna duintasanaren parametroetan kokaturik bizitzen ahalegintzen gara. Espetxeetan, borroka tresna baliogarri bat den heinean, berdin behar dugu kaleko elkartasuna eta beroa bizirik irauteko, eta horregatik, kalekoei dei egiten dizuegu euskal preso politikoen alde egiten diren ekimenean parte hartu dezazuen (gertukoena aipatzeagatik, urtarrilaren 14an Bilbon egingo den manifestazioa), eta baita bestelako elkartasun bitartekoak bilatu ditzazuen ere.

Gorka Fraile (Badajozeko espetxea)



**> BERBAZ** Jone Guenetxea  
Yemengo gerrako irudiek ez dituzte albistegiak zabaltzen. Hala ere, 2015eko martxotik bonbardaketek ez dute etenik. Egoera dramatiko honen erdian, Meritxell Relaño durangarra Unicefeko bulegoko zuzendaria da Yemenen. Larrialdietarako laguntza banatzen dute, elikagaiak eta sendagaiak, batez ere. Relaño nazioarteko gatazketan eskarmentu handiko profesionala da. Unicefen bidez Kolonbian, Ganbian, Mozambiken, Gibutin eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan jardun du lanean.

**Biolentzia presente dagoen herrialde askotan jardun duzu lanean. Hala ere, gerrako lehen lerroa pasatu zara.**  
Bai, eta gerra ezagutzea oso gogorra da. Gure aitona-amonei entzun diegu, baina, hala ere, zaila da imajinatzen.

**Eta zelakoa da gerra?**  
Deskribatzen duten modukoa da. Hegazkinak heltzen direnean, babeslekura sartu behar duzu. Egun arrunt batean lanean egon zaitezke, eta, bat-batean, bonba batek eztanda egiten du. Borrokan ari diren lekuan gu ezin gara sartu, eta ezin dizut esan hori bizi izan dudarik. Hiriburuan gehien bizi ditugunak bonbardaketak dira. Azken hilabeteetan 760 bonba jaurti dituzte.

**Zein egoera bizi dute une honetan Yemenen?**  
Egoera guztiz dramatiko da. Giza krisi egoeran daude. Siriari buruz asko hitz egiten da, eta Yemengo gatazkaz, ez. Baina bi herrialdeetan egoera oso antzekoa da. Milioika pertsona janaririk barik, uririk barik, bonbardaketen biktima izan daitezke... Egoera oso gogorra da, inportazioak blokeatuta daude eta. Beraz, herrialdean ez da janaririk sartzen elikagaien munduko programatik kanpo, hau da, giza laguntzatik kanpo. Sendagaiak Unicefekoak edo Médicos Sin Fronterasekoak dira. Komertzioa itxita dago, eta ekonomia kolapsatuta. Banku Zentrala kiebra eginda dago. Abuztutik funtzionarioek ez dute ko-bratzen.

**Elikaigirik barik, zer egoera ikusten dituzu?**  
Herrialde askotan ikusten ez diren malnutrizio tasak daude. Gerraren ondorioz, 460.000 ume malnutrizio larrian daude. Eta 3 milioi pertsona, amak eta umeak, malnutrizio egoeran. Ama asko makal daudenez, ume

## “Yemengo gerran iaz 2.000 ume baino gehiago hil ziren bonba, granada eta minengatik”

Yemengo gatazkan egoera dramatiko dela azaldu du Unicefeko bulegoko arduradunak. “Milioika pertsona janari eta ur barik daude”, dio Relaño



“**400 eskola berreraiki ditugu, eta beste 400 gelditzen zaizkigu**”

asko pisu gutxigaz jaiotzen dira, eta uraren eraginez behar-koa harrapatzen badute, jateari uzten diote. Malnutrizio egoera batean sartzen dira horrela. Horregatik, Unicefek larrialdietarako laguntza eskaintzen du.

**Hainbeste beharrianegaz, zeintzuk dira lehentasunak?**  
Urik ez dagoen lekuetan ura banatzea. Kamioiak uragaz kontratatu eta ura banatzea da helburuetako bat. Hirian ez dago elektrizitatetik. Era berean, Unicefen esku dagoen txertoen programari sendagai oinarrizkoenak gehitu behar zaizkio. Pneumonia sendatzekoak, antibiotikoak, behar-rakorako botikak... Osasun sistema kolapso egoeran dago. Dena dela, gure programa handiena malnutrizioari aurre egitekoa da.

“**Gerra egoera honetan badakizu biziak direla salbatu behar direnak**”

**Egoera horretan, zelan egin ahal zaio aurre malnutrizioari?**  
Hiru medizina edo superelika-gai daude. Esne sendotua eta kahuete pasta bat dira erabilienak. Pasta horrek nutriente eta grasa guztiak ditu umeak erre-

kuperatzeko. Oso erraz absorbatzen da. Umeek paketea zabaldu eta xurgatu egiten dute. Apurka-apurka, pisua hartzen hasten dira. Tratamenduak bi aste irauten du; beraz, interbentzio garestienetakoa da. Era berean, egoera dramatikoak denez, diru transferentziako programa ere badugu. Zer jan edo elikagaiak zegaz erosi ez duten familiei ematen diegun subsidioa da, bizirik iraun ahal izateko. Programa honetan 5.000 familiak parte hartu dute. Batzuetan zerbitzu minimo bat dagoen lekuetara merkantziak mugitzen ibiltzea baino askoz errazagoa da dirua banatzea eta beraiek erostea. Janaritan eta eskola materiallean gastatzen dute.

**Umeei bereziki, zein laguntza ematen diezue?**  
Laguntza psikologikoa ere ematen dugu. Gogorra da auzokorren etxean eraso dutela ikustea, hildakoak kaleetan... Arreta psikosoziala eskaintzen dugu eskoletan. Hemen, umeak, hilabeteetan zehar etxean sartuta egon dira. Nire lankideen umeak urte osoa etxetik irten barik egon dira.

**Yemenek maila pertsonalean zelan eragin dizu?**  
Oso triste da ikustea ume hauek guztiak ezin izan direla eskolara joan, biolentzia zuzenean ikusten ari direla. Triste da ikustea sasoi honek Yemengo haurrei zelan eragingo dien. Ni baikorra naiz eta uste dut egiten ari garenak zeozterarako balio duela, baina, bat-batean, berriro bonbardaketa gehiago datoz. Ura iragazki batetik botatzen ari zarela ematen du askotan. Egoera honetan badakizu biziak direla salbatu behar direnak, eta ezin duzu askoz gehiago pentsatu. Mentalki oso gogorra izan behar duzu.

**Hezkuntza sistema, zelan gelditu da ia urte biko gerraren ondorioz?**  
2016an 400 eskola berreraiki ditugu, eta beste 400 gelditzen zaizkigu, bonbardaketek jarraitzen duten bitartean. Gertatu zaigu eskola bat berreraiki eta ostera ere bonbardatzea, baina ezin gara ezer egin barik gelditu. Leku batzuetan kanpin-dendak jarri ditugu, batez ere iparraldean Huthiak, hau da, boterean daudenak dauden lekuan. Koalizio saudiak inguru hori bonbardatzen du batez ere, eta bonbardaketek jarraitzen dutenez, dendak jartzen ditugu. Eskola handiak dira, batzuetan 1.000 edo 2.000 ikaslekoak.





#### **Al Qaeda eta Isisek zer paper jokatzan dute gerra honetan?**

Hegoaldean Al Qaeda eta Isisek exilioan dagoen gobernu desestabilizatzen jarraitzen dute, protagonismoarako espazioa bilatzen dute. Orain aste batzuk bonba bat jarri zuten armadarako errekrutatzen ari ziren ilara batean, eta 40 gazte hil ziren. Aurretik ere, beste bonba baten eraginez, ehunka lagun hil ziren. Zentzu horretan, Aden arrisku-tua da.

#### **Prentsaurrekoa eman duzue Yemenen, ia 2.000 ume baino gehiago hil zirela salatuz.**

Nire lana da esku artean ditugun datu horiek guztiak batu eta gerran dauden aldeei gogoraraztea. Honenbeste eskola eta ospitale bonbardatu dituztela erakutsi. 2.000 ume baino gehiago hil ziren 2016an bonba, granada, mortero edo pertsonen kontrako minengatik... Ez dute jaramon handirik egiten, baina salaketa hori egitea ere bada gure lana.

#### **Inguru horretako beste gerrek milioika desplazatu eragin dituzte. Gerra honen ondorioz, badago errefuxiatuen kanpamendurik?**

3 milioi barne desplazatu daude, baina ez dago kanpalekurik. Hemen familietan edo ahal duten lekuan bizi dira. Eskoletan sartzen dira edo hutsik dauden orubeetan, esate baterako. Eskoletan familiak ere bizi dira.

#### **Gerra honek epe motzean irtenbiderik izan dezake?**

Ezin naiz baikorra izan. *De facto* zeuden autoritateak Sanan daude, eta orain aste batzuk gobernu izendatu dute. Beraz, 45 mi-

nistrok salbaziorako gobernu deritzona osatzen dute. Baina nazioarteak aitortzen duen gobernu Riaden dago, erbestean. Beraz, lana asko zaildu da.

**Eskarmentu handiko profesionala zara. Hainbat herrialdeetan lanean jardun duzu, baina honen guztiaren hasieran Durangoko Bateginez elkartea dago.** Ezjakintasunetik emakume talde baten artean elkartea martxan jarri genuen. Arropa eta jostailuz betetako kontainera bidali genuen Guatemalara. Gero konturatu ginen hobe zela produktuak bertan erostea. Haurrak babesean hartzeko sistema eta lan komunitarioa jarri genituen martxan. Osasun zentroa eta eskola sortu ziren. Pochutan birritan egon nintzen, 1994an. Hori izango zen nire lehen bidai. Eta hantxe konturatu nintzen horretan jardun gura nuela.

#### **1999an hasi zinen lanean Unicefen. Zein izan zen zure lehen eginbeharra?**

Eusko Jaurlaritzako beka bategaz Kolonbiara joan nintzen. Bi urtez boluntario moduan Unicefeko bulegoan lan egiteko aukera eman zidaten. Beka amaitu aurretik, Timorrera joateko kontratatu ninduten.

#### **17 urtean Kolonbian aldaketa asko gertatu dira. Zelan bizi izan dituzu zuk?**

Emozio handiagaz, egia esan. Lagun kolonbiar asko ditut. Han egon nintzenezan gazteagoa nintzen eta gehiago irteten nintzen. Horregatik, lagun asko egin nituen. Modu batean edo bestean, Kolonbiako bulegoan lan egin nuenean bake prozesu batzue-

“**3 milioi barne desplazatu daude. Hutsik dauden orubeetan sartzen dira**”

“**Gerraren ondorioz, 460.000 ume malnutrizio egoera larrian daude**”

kin lotura izan nuen. Bide asko zabaldu zirela zeuden, Bakearen Aldeko Emakumeen Taldeak, eliza, nazioarteko erakundeak... Solasaldi horietako batzuetan parte hartu nuen. Batzar horietan bi aldeek gatazka gainditzeko behar zutenaz berba egiten zuten. Azkenean, hainbeste urte igaro eta gero, irtenbide bat ikustea emozioz bizi izan dut

**2000. urtean Timorrera joan zintenean zer aurkitu zenuen han?** Indonesiarrek Timor 25 urtez okupatu eta gero, erreferenduma egin zuten independentziaren alde. Timorreko biztanleek independenteak izan gura zutela erabaki zuten. Orduan, administrazioko ia kargu guztiak okupatu zituzten indonesiarrek. Alde egiterakoan dena erre zuten. Artxiiboak, eraikinak... Pintada esanguratsu bat egin zuten. “Joango gara eta harriak jango dituzue”, zioen. Era berean, jakintza guztia eramane zuten.

#### **Timorrekoa, zelako esperientzia izan zen?**

Nazio Batuen aldi baterako misioan parte hartu nuen. Heldu ginen dena suntsituta aurkitu genuen. Itsasontzi batean bizi ginen, eta egunean zehar bulegoan egoten ginen. Helikopteroan mugitzen ginen herrialdean, bake misio bat zegoenez militar asko baitzegoen. Haur Hezkuntzaren egoera aztertu behar nuenez probintzia guztietara bidaiatu nuen, eskolen egoera zein zen ikustera. Herrialdea bera ikusgarria da.

#### **Panamara itzuli zinen gero.**

Bai, Kolonbiako bulegoa Panamara lekualdatu zuten. Hego Amerikako eta Karibeko bulegoa zen. Haur Hezkuntzako programen inguruko analisi bat egin genuen, eta ia herrialde guztietara bidaiatu nuen.

#### **Ondoren, Mozambikera bidaiatuz Afrika ezagutu zenuen. Aldaketa handia izan zen?**

Shock handia izan zen. Pertsonalaren gaitasuna oso handia da Hego Amerikan. Jendea oso formatuta dago. Afrikan baliabideak mugatuagoak dira. Esperientzia polita izan zen. Izan ere, 2003an Mozambike gerratik irten berria zen eta trantsizio fase baten zegoen.

#### **Hezkuntzan jardun zenuen? Zein proiektutan?**

Bai, eta baita HIESaren prebentzioan ere. Epidemia oso larria zen Mozambiken eta Hegoafrika osoan. Hezkuntza sistemaren barruan eskolan zebiltzan gazteekin prebentzio lana egin genuen. Eskolatik kanpo zeudenekin ere bai, komunitateen eta jolas taldeen bidez. Ondoren,

Lehen Hezkuntzako proiektu bat jarri genuen martxan.

#### **Bost urte Afrikan eman eta gero, urte beteko atsedenaldia hartu zenuen. Zergatik?**

Tesi doktorala amaitu gura nuen eta etxera itzuli nintzen. Nazioarteko erakundeak ingurura zelan moldatzen diren eta zelan ikasten duten aztertu nuen.

#### **Urte horren ostean, Gambiara joateko deitu zizuten. Zer egoera aurkitu zenuen han?**

Herrialde oso pobrea da, azpiegitura garatu gabeak ditu. Turismotik bizi dira urritik martxora. Ingelesak, norvegiarrak... Kostaldea zoragarria da eta hotelez beteta dago. Orain dela gutxi Gambian hauteskundeak egin dituzte, eta oposizioak irabazi du. Telebista guztietan Yahya Jammeh presidentea agertu zen irabazleari orain presidentea bestea zela esanez. Ordura arteko diktadura gogorraren ostean, keinu horrek harritu egin ninduen. Izan ere, herrialde honetan giza eskubideak ez ziren asko errespetatzen. Bi hilabete geroago, Yahya Jammeh-k esan zuen kontaketa txarto egin zutela eta ez diola oposizioari boterea emango.

#### **Gibutin ere izan zinen. Herrialde zaila izan al zen?**

Herrialde oso zaila da. Egoera zailagoa zen, besteak beste, nire umeekin joan nintzelako. Gibutin 40-50 gradu egiten ditu egunero. Leku erabat idorra da. Leku estrategiko batean kokatuta dagoenez, herrialde txikia izan arren munduko 10 armadak base militar bana dute bertan. Horatik eta portutik bizi dira.



# EDERTASUN GIDA



**Rosana Garcia  
eta Izaskun Egia (Bihotzez)**

## Xaboi naturalak

### Zer eskaintzen duzue Bihotzez Gune Naturalean?

Bertako produktu guztiak naturalak dira. Xaboiak, kremak eta serumak, gorputzerako olioak, makillajeak, gel eta xanpuak, desodoranteak, koloniak, ilerako tindagaiak, kontrakturatarako kremak, zaku termikoak, kandelak, intsentsuak... Bestalde, kabina bi ditugu. Estetikakoan, depilazioak, azaleko garbiketak, mesoterapia eta presoterapia eskaintzen ditugu, adibidez. Akupuntura eta kiromasajekoan, estilo askotako masajeak eskaintzen ditugu. 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara egoten gara.

### Promozio bat duzue, ezta?

Urtarrilean, %20ko deskontua daukagu zerbitzu guztietan; pina masajeak, makillajea eta betileen luzapenak salbu.

### Xaboi naturalekiko interesa handitzen al dabil?

Oraindik ohiko xaboiak erabiltzera ohituta gaude, baina gero eta jende gehiago dabil naturalekiko kontzientzia hartzen. 30-45 adin tartekoak eta pertsona nagusiak, batez ere. Xaboi bakoitza espezifikoa da; bat azal helduetarako izan ahal den bitartean, beste bat gantza duten azaletarako da.



## ILE- APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK



**Profesionalik onenak  
zure zerbitzura!**



# JAIAK!

**BERRIZ**

2017ko URTARRILA



**Berrizko Udalak jai  
zoriontsuak opa deutsuez**

[www.berriz.eus](http://www.berriz.eus)





# BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

## Urtarrilak 13, barikua

**19:00** Olakuetan kalejira.  
Taberna ibiltaria.

**19:30** "Sagardotegi ibiltaria"  
Olakueta plazan.

Ondoren, **odoloste jana**  
Olakueta plazan.

**20:30** Olakuetarrek ibilalditxoa egin ostean, **Donien Atxa** altxatuko dute Olakueta plazan.

**21:00** San Antonio XI. pilota txapelketa - finalak.  
Olakueta frontoian.

**22:30** Kontzertuak gaztetxean:

- La última bala
- Cactus
- LauP4

## Urtarrilak 14, zapatua

**12:30** Tomaxen abentura "festara". Olakueta frontoian.

**13:00** Fondan, mozorro poteoa.

**15:00** Bazkaria. Mozorrotuta datozenentzat zozketa.  
Gaztetxean.

**17:00** Kontzertua

- Rukula
- Dj Aka

**17:30** Nesken frontenis eta pala.  
Olakueta frontoian.

**18:00/22:00** Erromeria Luhartz taldearekin  
Olakueta plazan.

**22:00** Berrizko Kultur Etxea

**Kontzertua:**

- Viva Belgrado "Ulises"
  - Tres 41 "Resilientes"
- Sarrera 5 €.

## Urtarrilak 15, domeka

**11:00** Eskualdeko XXXVI. barazki eta fruitu erakusketa probalekuan.

**11:00** Artisau txokoa frontoian.

**12:00** Baserriko oilasko dastaketa. Olakueta plazan.

**12:30** Antonio Deunaren baselizan meza.  
Ondoren, **Iremiñe** eta **San Lorentzo** dantza taldeen ekitaldia Olakueta plazan.

## Urtarrilak 16, astelehena

**17:00/19:00** Barrakak merkeago (0,50 €-tan).

**19:00** Askaria eta nekazal olinpiada Frontoian.  
Sarrera 1 €.

Ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria (amaitu arte).

## Urtarrilak 17, martitzena SAN ANTONIO EGUNA

**19:30** Antonio Deunaren baselizan kontzertua:

Alos Quartet. "Garden"  
Xabier Zeberio: Nyckelharpa, biolina.  
Francisco Herrero: biolina.  
Lorena Nuñez: biola.  
Pello Ramirez: txeloa.

## Urtarrilak 24, martitzena

**19:00** Donien Atxa kenduko dute.

**21:00** Olakuetarren afaria.

## Urtarrilaren 19tik 23ra

**PROBAK**

IXI. Antonio Deuna sari nagusia.



**AZKONDO**  
ELEKTROTRESNAK  
Iturriza, 8 - Berriz - 946 824 293



Iturriza kalea, 9  
Tel.: 946 824 009  
48240 BERRIZ

**HIERROS**  
**RIEZU S.A.**  
burdinak eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131  
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

**ETXEBARRIA**  
ESTANKOA

Iturriza, 14  
Tel./Faxa: 946 827 958  
BERRIZ

Liburudenda  
**Amaluz**  
aldizkariak  
papera  
opariak

Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

**ORLEGI** TABERNA  
Iturriza, 5 BERRIZ  
Tel.: 946 824 828



# Tabernarik taberna, kantuan hasiko dituzte berriztarrek Olakuetakoko jaiak

Gaur, 20:30ean, ipiniko dute Donien Atxa. Aurretik, 19:30ean, sagardoa eta odolostea dastatuko dituzte



Donien Atxa altxatu aurretik, Taberna Ibiltariko musikariak arituko dira jaien lehenengo eguna giroten.

**> JAIK** Itsaso Esteban

Mendi bizikleta martxagaz hasi ziren, joan zen asteburuan, Berrizko San Antonio jaien egitarauaren barruko ekintzak. Gaur emango diete berriztarrek, baina, tradizioak agintzen duen hasiera jaietara; 20:30ean ipiniko dute jaiak iragartzen dituen Donien Atxa, Olakuetakoko plazaren erdian. Horren aurretik, 19:00etan hasita, tabernarik taberna ibiliko dira berriztarrek, musika lagun, kantuan. Taberna Ibiltaria taldekoak jardungo dira, Donien Atxa ipini aurreko jaietako lehenengo poteo hori giroten. 19:30ean, azken urteetan ohitura bilakaturiko sagardo

eta odoloste janean elkartuko dira berriztarrek Olakuetakoko plazan. Jan-edanerako ezezirik, jai egitarauak kirol zein kultur arloko askotariko ekintzak gozatzeko aukera ugari eskaintzen ditu jaietan, harik eta urtarrilaren 24an Donien Atxa kendu ostean olakuetarrak afaritarako elkartu arte.

**Azokara domekan**

Urtarrilaren 15ean, 11:00etan, zabalduko dute eskualdeko XXXVI. barazki eta fruitu erakusketa, probalekuan. Ordu beretik, gainera, artisautza azoka ere ikusgai izango da, eguerdira arte, frontoian.

**Urtarrilaren 24an afaltzera elkartuko dira olakuetarrak**

# Tres41 taldeak kontzertu berezia eskainiko du Kultur Etxean

Viva Belgradogaz batera arituko dira zapatu honetan, 22:00etatik aurrera

**> MUSIKA** Aimar Esteban

Antonio Deunaren jaietako musika egitarauaren barruan Berrizko taldeak ezohiko emanaldia eskainiko du zapatu honetan herriko kultur etxean. Beraien hardcore soinua horrelako espa-

rru batera moldatu beharko dute. "Jendeak zerbait desberdina ikusiko du kontzertu honetan. Lekua dela-eta saioa era berezi batean planteatzea gura dugu", azaldu du Mikel San Ciprianok, Berrizko taldeko abeslariak.

Tres41 2007an sortu zen boskote moduan, baina orain laukotea dira: Asier Otadui Zana baxu-jotzailea, Mario Cosme gitarrista, Mikel San Cipriano Puro abeslaria eta Imanol Bilbao bateria-jotzailea. "Urte gogorra izan da. Ion Chavez gitarrista eta konposatzaile nagusiak taldea utzi ondoren, nola jarraitu planteatu behar izan genuen. Baina, lan asko egin ostean, kontzertu asko ematea lortu dugu. Gainera, diskoak harrera ona izan du", adierazi du taldeko abeslariak. *Resilientes* deituriko beraien azken lana aurkezten egon dira hilabete hauetan. Besteak beste, Madril, Burgos eta Santander hirietan ibili dira jotzen. "Euskal Herritik kanpo irtetea esperientzia oso ona izan da guretzat", dio. Aurrean, Berlinera jotzen joateko aukera ere izango du talde berriztarrek.

Viva Belgrado ere arituko da oholta gainean zapatu honetan. "Ezagutu nituenetik nire talderik gogokoena da. Beraiekin jotzea ohorea da", aitortu du Purok. Kordobako taldeak *Ulises* aurkeztuko du, kritika ona jasotzen ari den bere azken lana. Emanaldirako sarrerak bost eurotan salduko dituzte.

Kontzertuaren aurretik, Madrilgo Edu Locomotora margolariak *Personajes Célebres* erakusketa inauguratuko du, Kultur Etxean, 19:30ean. "Gure musikaren arima bera duen lan artistikoa egiten du eta merezi duen erakusketa izango da", argitu du San Ciprianoak.

**Alos Quartet-en emanaldia**

Musikak martitzenean ere jarraituko du. 19:30ean, Alos Quartet harizko laukoteak kontzertua eskainiko du Antonio Deunaren baselizan. Argitaratu duten *Garden* izeneko lana aurkeztuko dute. Xabier Zeberio (nyckelharpa eta biolina), Francisco Herrero (biolina), Lorena Nuñez (biola) eta Pello Ramirez (txeloa) laukoteak osatzen du Alos Quarter taldea. 1999an sor-

tu zen Alos Quartet taldea, eta taldekideek hainbat musikari-gaz jo izan dute euren ibilbide luzean.

**Gaztetxeko jai egitaraua**

Berrizko Hiltegeixeko gaztetxeak bere egitaraua prestatu du jaietara. Barikuan, 22:30ean hasita, La Última Bala, CäcTus eta LauP4 taldeek kontzertua eskainiko dute.

**Tres41, Viva Belgrado eta Alos Quartet daude musika egitarauan**

Zapaturako, mozorro poteoa egiteko deia zabaldu dute gaztetxetik. 13:00etan hasiko dute Fondan, eta ondoren bazkaria egingo dute. Bertara mozorro-tuta joaten diren lagunen artean zozketa bat egingo dute. Arratsaldean musika izango da protagonista berriz ere gaztetxean. 17:00etan, Rukulak eta DJ Akak kontzertua emango dute zapaturako jaietara alaitzeko.



Tres41 taldea emanaldi berezia prestatzen ari da Kultur Etxean eskaintzeko.

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZKAIA  
TEL: 94.682.62.46

**pedrojuan**  
JATETXEA

**Ibai Ondo**  
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10  
946 824 489  
f 946 824 489  
ferreteriaibaiondo@gmail.com  
BERRIZ

**express**  
Zengotitabengoa BERRIZ 946 824 215

Produktu ekologikoen eskaintza

**Carrefour BIO**

**Juliantxu**  
Jatetxea

94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)



Mikel Laskurain Erreka (Eibar, 1968) eta Sorkunde Viguera Gorostiza (Berriz, 1971)

# “Gazteei pilotarako afizioa transmititu izanak poz handia ematen digu”

Jaietako hainbat ekintza antolatzen jarduten dute Laskurain eta Viguera senar-emazteek



**> JAIK!** Joseba Derteano  
Heziketa fisikoko irakasleak dira, elkarregaz ikasi dute, ikastetxe berean lan egindakoak dira, batera irteten dira kirola egitera eta elkarregaz antolatzen dute jaietako pala txapelketa. Senar-emazte hauen bizitza ez dago kirolik barik ulertzerik.

Jaietan emakumeen frontenis eta paleta goma txapelketak izaten dira eta, batean zein bestean, zuek zarete sustatzaile nagusiak. Hasi gaitzen frontenisetik. Azken urteetan arrakasta handia izan duen ekimena da.

**Sorkunde Viguera:** 2010. urtean San Pedro jaien barruan antolatu zen lehenengoz. Gizonen bideratutakoa zen. Bageunden frontoia gustatzen zitzaigun emakume batzuk eta elkartu egin ginen txapelketa batean. 20 bikote izatera ere heldu gara. Sanantonioretan hiru bat aldiz antolatu dugu.

**Aurtengoa urtarrilaren 14an izango da.**

**S.V.:** Aurten hiru bikote daude, eta euren arteko txapelketa izango da. Jokatzuz gozatzea da helburua. Horregatik bikote orekatuak antolatzen saiatzen gara beti.

**Antolatzaileak badu txapelik etxean?**

**S.V.:** Bai, behin irabazi dut (barreak). 2015eko txapela.

**Mikel, esku pilota txapelketan aritua zara. Txapelik bai?**

**Mikel Laskurain:** Finalean geratu zen txapela! Orain bost bat urte jokatu nuen finala. Hainbat bider parte hartu dut, baina txapelik barik erretiratu naiz. Belaunetan desgastea dut eta ez naiz berriro arituko.

**Oizpe pilota elkarteko nesken paleta goma saileko ardura-dun zarete. Noiz eta zergatik sortu zenuten?**

**S.V.:** Gure zaletasuna alabari transmititu genion. Alaba prest zegoen jokatzeko, baina herrian ez zegoen horretarako aukerarik. Ni Mallabian irakasle egon naiz eta zaletasun itzela ikusten nuen han. Itsaso Praderak gidatzen duen eskola da. Orduan, gure alabaren adineko neska bat esku pilotan apuntatu zen, eta beste neskarik ez zebilenez, gure alabagaz paleta goman aritzeko prest ote zegoen galde-tu zioten. Horrela sortu zen orain lau urte. Gaur 11-13 urte arteko lau neska dabilta.

**M.L.:** Pilotarako afizioa dute.

**S.V.:** Handia. Berrizen ezin bada, elkartu eta ondoko herriko pilotalekura joaten dira jokatzera.

**S.V.:** Gazteei pilotarako afizioa transmititu izanak poz handia ematen digu.

**Talde bat kudeatzeak buruhauste asko eragiten di-**

**tu. Horiek denak frontoiko lau hormen artean geratzen dira ala etxera eramaten dituzue?**

**S.V.:** Ez dugu hormarik jar-tzen. Beharrak sortu ahala, aurre egiten diegu.

**M.L.:** Ondo elkar hartzen dugu eta ez dugu eztabaidatzen. An-tzerako irizpideak ditugu.

**Biok heziketa fisikoko irakas-leak zarete eta kirola maite duzue.**

**M.L.:** Bai, kirola maite dugu, edozein izanda ere. Bizitzako une batzuetan 24 ordu elkarre-gaz emandakoak gara. Klase-kideak izan gara ikasketetan, ikastetxe berean irakatsi du-gu heziketa fisikoa, etxera eto-rrri eta elkarregaz... eta sekula arazorik barik.

**Elkarregaz kirol asko praktika-tzen duzue?**

**M.L.:** Korrikan, bizikletan, es-kiatzen zein frontoian kirol asko egin dugu elkarregaz. Hondartzara goazenean ere palan orduak ematen ditugu.

**Bata besteagaz lehiakorrek zarete?**

**M.L.:** Ez, bat ere ez.

**S.V.:** Korrika ibili garenetan esan izan dit: “Zuk zure itzala ere ez duzu aurreratzen”. Ez naiz lehiakorra. Frontoira go-zatzera etortzen naiz.

**M.L.:** Norbaitegaz kirola egi-ten banabil eta haserrealdia sortu daitekeela ikusten ba-dut, nahiago dut galdu eta giro onari utsi. Sorkunderen an-tzerakoa naiz horretan.

**S.V.:** Horrek ez du esan nahi ez dugunik dena ematen!

**Kirolak batzen zaituzte. Zer egingo zenukete kirolik barik?**

**M.L.:** Gure ogibideak eta hobby-ek lotura zuzena dute kirolagaz edo gorputza mugit-zegaz. Kirolik barik hutsune handi bat sumatuko genuke.

**S.V.:** Ez dakit zegaz beteko ge-nukeen!

**Mikel, koadrilen arteko olin-piadetan aurkezle lanak ere egiten dituzu. Gustuko duzu?**

**M.L.:** Gozatzen dut, bai, baina beste norbait mikrofonoa har-tzeko prest egongo balitz ez nuke erreleboa emateko inon-go arazorik izango.

**Mikrofonoa eskuan, saltsero horietakoa zara?**

**M.L.:** Bai (barreak). Giroa ani-matzen saiatzen naiz. Horretar-ako gaude, ezta?

**Joan zen asteburuko men-di bizikleta martxa antolatzen ere jardun duzu.**

**M.L.:** Ibilbidea diseinatzen, la-guntzen... hor aritu naiz, bai. 529 lagunek parte hartu dute aurtengo al-dian eta jendeak asko gozatu du. Horrela jaki-narazi digute hainbatek. Gu-retzat ez dago jendeari gusta-tu zaiola jakitea baino sari ho-berik.

**Jai batzordeko kidea ere ba-zara. Zer giro duzue?**

**M.L.:** Giro ona dago eta betiko martxan gabilta. Gertatzen dena da jende berri gutxi da-goela. Eta betikoak gabilta-nez, sarritan ideiak errepika-tu egiten dira. Ondorioz, jaiet-ako egitaraua urtero berdina da, aldaketa txiki batzuekin. Beharbada odol berriak nobe-dadeak ekarriko lituzke. Jen-de gaztearen bultzada berri horren falta igartzen dut.

**Gaurko kalejira musikak giro-tuko duela da aurtengo nobe-dade bat.**

**M.L.:** Bai, Taberna Ibiltaria izeneko Bakioko talde bat da. Oso animosoak ei dira, eta po-teo orduan giro alai jarriko dute, seguru.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



## “Nire umetako oroitzapenen mapa sentimentalean dago kokatua saria jaso duen ipuina”

Gabriel Aresti lehiaketan saritu dute Gontzal Sanchez abadiñarraren lana

**> LITERATURA** Itsaso Esteban Bilboko Udalak antolatzen duen Gabriel Aresti ipuin lehiaketaren 2016ko edizioaren sariduna da Gontzal Sanchez (Abadiño, 1973). *Heriotza maitasunez* izenburuko lana saritu dio Arantza Urretabizkaia, Unai Elorriaga eta Ana Urkiza idazleek osaturiko epaimahaiak, eta 3.500 euroko saria jaso du abadiñarrak. Idazle horiek bere testua gustuko izanak poz handia eman dio Sanchezi, eta baita Gabriel Aresti lehiaketan aitzatespena jasotzeak ere.

Gontzal Sanchezek duela urte batzuk idatzitako ipuina da *Heriotza maitasunez* lanaren oinarria. Hasierako ideia berarrtu eta osatu egin zuen lehiaketara aurkezteko. Izan ere, “horrela idazten da”, Sanchezen berbetan: “Idatzitakoagaz ez zara konforme geratzen, eta berriro ekiten diozu”.

Egiaz hilketa bat izan den heriotza bat da *Heriotza maitasunez* ipuinaren ardatza. Sanchezek azaldu duenez, “ume baten

“**Kontakizun luzeago bat idazteko grina sentitzen dut**”

eta ehorzlearen arteko elkarriketa batetik doa irakurlea jakiten zer den benetan gertatu dena: hildako gizonaren alaba herriko gazte batez hasi da, eta aitak ez du mutila begiko. Neskaren aitak badaki mutila etakidea dela, eta itxura batean bere salaketaren ondorioz atxilotu egiten dute gaztea... *Txi-batoa* delakoan hil egiten dute neskaren aita”.

Egilearen berbetan, sakonean, heriotzaren inguruko gogoeta bat da ipuina. “Hil ostean hildakoaren izena zelan erabiltzen dugun da oinarrian dagoen hausnarketa: hildakoak bere iritzia edo bertsioa ematerik ez duenean zelan zabaltzen ditu-

gun berari buruzko gezurrak eta egiak” azaldu du Sanchezek.

### Oroitzapenen mapa

Duela urte batzuetako Abadiño izan zitekeen herri batean dago kokatua istorioa, Errenteriako lehiaketan saritu zioten *Azken etxola hura* ipuina bezala. “Benetako pertsonaiak dira batzuk, eta asmatutakoak beste hainbat: umetako nire oroitzapenen mapa sentimentalean dago kokatuta ipuina, baina beste edozein lekutan gerta zitezkeenak dira kontatzen ditudanak”.

Idaztea gaztetatik daukan “gaixotasuna” dela kontatu du Gontzal Sanchezek. Garai batean batez ere olerkiak idazten zituen arren, azken aldian gehiago dihardu ipuingintzan. Azaldu duenez, Bilboko beزالako literatur lehiaketak idazten segitzeko “akuilu” dira berarentzat: bere buruari helburu eta epe zehatzak markatzen laguntzen diote lehiaketek. “Kontakizun luzeago bat idazteko grina sentitzen” duela adierazi du.



Sanchez, Gabriel Aresti lehiaketako sari emate ekitaldian.

Donostian bizi da Gontzal Sanchez, eta gaztelania irakasle egiten du lan. Gogora ekarri duenez, 15 urtegeaz hasi zen Aba-

diñoako AEKn euskara ikasten, “irakasle onekin eta gogotsu” ekin zion, eta Euskal Filologian lizentziatu zen, gero.

## ‘Jainko Basatia’ antzezlanaren euskarazko moldaketaren estreinaldia egingo dute San Agustin kulturgunean

Antzezlan arrakastatsua euskaraz ikusteko aukera izango da domeka honetan, 19:00etan, San Agustinen

**> ANTZERKIA** Aimar Esteban Txalo Produzioaren eskutik obra honen euskarazko bertsioa Durangoko eszenatokian ikuste-

ko aukera izango da lehen aldiz. “Estreinatze tokirik egokiena iruditzen zitzaigun. Durango herri garrantzitsua da, eta horre-

gatik, oihartzun handia izateko, plaza egokia iruditzen zitzaigun”, azaldu du Xabier Agirre antzezlaneko produktoreak.

*Jainko Basatia* komedia dramatikoa da. Bikote ezkondu bi beraien semeen arteko liskarrak konpontzeko asmotan elkartzen dira. Bikote baten semeak bestearenari eraso egin dio eta arazoak konpontzeko egiten duten bileran pertsonaia guztien miseria eta frustrazio denak azaleratuko dira. “Testu originalean oinarritu gara eta soilik izenak edo entseguetan beharrezkoak ikusi ditugun gauza zehatz batzuk aldatu ditugu”, azaldu du produktoreak.

Begoña Bilbaok zuzentzen duen antzezlan famatu honetan, Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Tessa Andonegi eta Andoni Agirregomezkorta aktore ezagunek laukote protagonista interpretatzen dute.

*Jainko Basatia* Yasmina Rezak 2007an idatzitako obra arrakastatsua da. Frantzia kritika onak jaso ondoren, munduko hainbat tokitan ere interpretatu da antzezlan. “Testu oso ezaguna da, estatuan ere arrakastaz egin da, eta Roman Polanskik 2011n egin zuen zinemarako bertsioak ere oso harrera ona izan zuen. Beraz, esperantza handia

‘Jainko Basatia’ Yasmina Rezaen antzezlan da, eta arrakasta handia izan du mundu osoan

daukagu gure moldaketa ondo joateko”, dio Agirrek. San Agustineko emanaldirako sarrerak 10 eurotan daude salgai.

Estreinaldiaren ondoren, bira luzea egingo dute. Euskal Herriko hainbat herritan antzeztuko dute, maiatzera bitartean. Guztira, hogeita hamar bat emanaldi eskainiko dituzte.



Tessa Andonegi, Andoni Agirregomezkorta, Mikel Losada eta Aitziber Garmendia dira protagonistak.



> **MARGOLARITZA** I. Esteban Gaur, 19:00etan, inauguratuko dute Durangoko Museoak 2017. urte honetan zabalduko duen lehenengo erakusketa. Javier Minaren (Iruñea, 1950) *Circus mundi* izeneko bilduma izango da urtarrilean Durangoko Museoan ikusgai.

Aitor Aurrekoetxea arte kritikari durangarraren berbetan, "proposamen kolorista eta ausera" da Minak erakusketa horretan egiten duena. Satira politikoa darie *Circus mundi* bildumako lanei, eta Aita Santua, Mariano Rajoy edota Donald Trump dira bere koadroen protagonistak. Beraien fisonomia, izaera eta jardunaren berezitasunak nabarmenduta, ikuspegi kritiko batetik eta ironia baliatuz marrazten ditu. Aita Santua funambulismoa egiten agertzen du, esaterako, edota suge baten itxuragaz Turkiako presidentea. Pintura akrilikoagaz egindako koadroak dira Minak Durangon ikusgai ipiniko dituenak, formatu handikoak.

Bestalde, urtarril hasieratik Elorrioko Iturri kultur etxean dago Sergio Saezen (Bilbo, 1954) *Orfeo & Euridice* erakusketa, eta han izango da, hilaren 30era

## Urtea hasteko, hiru margokera desberdin ezagutzeko aukera

Durangon, Elorrion eta Berrizen pintura erakusketa bana dago ikusgai



Javier Minaren lana.

arte, ikusgai. Oleo eta akriliko margotutako hamasei koadrok osatzen dute Saezen bilduma hau. Orfeo eta Euridiceren mito grekoari buruzko testuek eta erakusketaren katalogoan datozen Rilkeren sonetoei osatzen dute Saezen erakusketa.



Sergio Saezen lana.

Urtarrilaren 30era arte, Elorrioko kultur etxea zabalik dagoen orduetan egongo da *Orfeo & Euridice* erakusketa zabalik, 09:30etik 21:00etara arte.

Azkenik, bihartik otsailaren 4ra arte, Edu Locomotoro artista plastiko eta diseinatzaile



Edu Locomotororen lana.

madrildarraren lana ezagutzeko aukera izango da Berrizko Kultur Etxean. *Personajes célebres* izena du Locomotorok Berrizera dakarren erakusketak, eta gizarte eta kultura arloko pertsonaia ezagunen erretratu bereziek osatzen dute.

### GEURE DURANGALDEA

**ANTTON URIARTE**

Musikaria



### Sinetsarazi nahi digute

Olentzerok ikusiko gintuenik aipatu ere egin gabe, sinetsarazi nahi ziguten zintzoak izan behar genuela, beraiek nahi eran ezarririko arauekin eta bidetik jo behar genuela (goiko jaunak, lege zaharrak), eta horixe, guztia berez etorriko zela, erraz eta emana.

Sinetsarazi nahi digute, baita ere, gerrek teleberrietan adina egun irauten dutela munduan, eta gero beti dator futbola. Bide batez, gabonetako lagunarteko bat aski dela kirolean nazio ofizialtasuna behingoz lortzeko, hori ere onar dezagun nahi dute.

Ostras, eta irratia! Jaso dezakegun eskaintza musikala reggaetoi eta top gazteko momentuko euskal kantuetara (trikitixa edota tronboiekin bada, hobe!) mugatzen dela pentsa dezagun gura dute.

Bestalde, urtea espainolez mintzoaz emanda ere, abenduaren 3ak, txantxangorri batek eta bi urtean behin herri bueltan Korrikan ateratzeak euskara salbatuko duela sinetsi dezagun nahi dute.

Gainera, urte hasiera guztietan sinetsarazi gura digute gure herrian mugitzeko beharrezkoak direla autopista gero eta garestiagoak zein tren laster garestiegiak.

Eta sinetsarazi nahi digute euren zain izan behar dugula, gure herrian aurrerabiderik bada, euren eskutik datorrena baino ez dela izango. Sinetsarazi gura digute ez dela behar Bilbo jendez lepo bete eta beste urtebetez giza eskubideak urratzen direla ozen erakustea, nahikoa dela teleberrian entzun eta sofatik ikustea (tarterik eskainiko badiote).

Eta gaitzena da, gainera, sinetsi ere egingo dutela hori dena sinetsarazten digutela.

## Argazkilariei, lanak bidaltzeko deialdia

Kinua elkarteak hurrengo argitalpenean parte hartzeko proposamena egin die argazkilariei



Sei egileren lana aukeratuko dute, 2017ko bigarren seilekoan argitaratzeko.

> **ARGAZKIGINTZA** A. Esteban *Pewen, cuadernos de fotografía* bildumarako argazkilaria bilatzen ari da Kinua argazki elkarteak. Hilero autore baten monografikoa argitaratzen duen argazki bilduma da aipaturikoa, eta Durangoko Begira Photo jaialdia antolatzen duen Kinua elkarteak kideen eta Hegoamerikako argazkilarien lana ezagutzera emateko sortutako Mugak argitaletxearen proiektua da.

Aurtengo bigarren seihilekorako bildumak osatzeko, argazkilaria bila dabilza Kinuako kideak. Beraien obrak bidaltzeko deia egin diete argazkilariei, eta jasotako artean sei autore aukeratuko dituzte. Parte hartu gura duten argazkilariek PDF formatuan bidali behar dituzte beraien lanak, honako helbide honetara: [info@mugaproject.com](mailto:info@mugaproject.com).

Dokumentuan, beraien biografia txiki bat, lanaren deskribapena eta 20-30 argazki bidali behar dituzte argazkilariek. Lanak bidaltzeko epea maiztaren 31ra artekoa izango da. Aukeratzen dituzten autoreei hamarna ale bidaliko dizkiete eta 44 salmentan jarriko dituzte, 6 euroan.

Honakoak izan ziren iaz Kinua elkarteak argitaratu zituen lanak: Ximena Almeydaren *Calma*, Alex Murianaren *Sed de sombra* eta David Inclanen *Piel de otoño*. 2017ko lehen seihilekoan, aldiz, Sofia Seguroren *Raíces andinas*, Mara Sanchez-Reneroren *El cimarrón y su fandango*, Marc Llach-en *Happy hour*, Santiago Haffordenen *La vaca atada*, Fernando Maselliren *Hierofánias* eta Raúl Goycoolearen *La isla* argitaratuko dituzte.

**estreinua**

Txalo Produzioak

### Jainko basatia

Urtarrilaren 15ean, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

<b>JAT ETX EA</b>	<b>antzerki TXIKI</b>	<b>Live And Beat</b>
<b>EGUNEKO MENUA</b>	<b>URTARRILAK 23</b> 17:30ean	<b>URTARRILAK 26</b> 20:00etan
<b>IGANDEETAN MENU BEREZIAK</b>	<b>ANTZERKITXIKI</b> ANTZERKIA	<b>KANTULAGUN</b> KANTALDIA

**URTARRILAK 28**  
0:00etan  
**LIVE&BEAT-GLOW IN THE DARK**  
JAIALDIA



**AGENDA****> FUTBOLA****OHOREZKO MAILA**  
(gizonak)**Iurretako - Erandio**  
· Zapatuan, 17:00etan,  
Larrakozelaian.**MAILA GORENA**  
(gizonak)**Abadiño -Indautxu**  
· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.**BIGARREN**  
**ERREGIONALA** (gizonak)**Zaldia B - Berriz**  
· Zapatuan, 16:30ean,  
Solobarrian.**HIRUGARREN**  
**ERREGIONALA** (gizonak)**Elorrio B - Gernika Sporting**  
· Zapatuan, 18:00etan,  
Elezalden.**Kultural B - Orduña**  
· Zapatuan, 16:30ean, Tabiran.**Ezkurdi B - Indarra**  
· Domekan, 16:00etan, Tabiran.**Durangoko Bikainak -**  
**Atulaur**  
· Zapatuan, 18:30ean, Tabiran.**> ARETO-FUTBOLA****EUSKAL LIGA** (gizonak)**Elorriko Buskantza - Bakio**  
· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko  
udal kiroldegian.**Mallabia Seguros Altaldi -**  
**Afantxo Pescadow Ferreres**  
· Domekan, 16:00etan,  
Zaldibarko kiroldegian.**LEHEN ERREGIONALA**  
(gizonak)**Mallabia B - Soloarte B**  
· Domekan, 18:00etan,  
Zaldibarko kiroldegian.**BIGARREN**  
**ERREGIONALA** (gizonak)**Abadiño Txopoa - Bermeo**  
· Zapatuan, 17:00etan,  
Traña-Matienako kiroldegian.**Racing Tolosto - Gu Lagunak**  
· Zapatuan, 17:00etan,  
Landako kiroldegian.**> ESKUBALOIA****EUSKADIKO**  
**TXAPELKETA**  
(emakumeak)**Ibaizabal - Avia Eibar**  
· Domekan, 12:00etan,  
Landako kiroldegian.**> SASKIBALOIA****ZILARREZKO LEB LIGA**  
(gizonak)**Zornotza S.T. - B. Navarra**  
· Zapatuan, 18:30ean,  
Larrea kiroldegian.**EUSKADIKO LEHEN**  
**MAILA** (gizonak)**Tabirako Baqué - Biok2.com**  
Zapatuan, 18:00etan, Landako  
kiroldegian.**LEHEN ERREGIONALA**  
(gizonak)**Anbotopeko - Zamudio**  
· Zapatuan, 18:00etan,  
Landako kiroldegian.**Julza-Zaldia - Otxarkoaga**  
· Zapatuan, 17:00etan,  
Zaldibarko kiroldegian.**> ERRUGBIA****EUSKAL LIGA**  
(emakumeak)**Durango Uribe Nissan Gaurisa**  
**- Hernani**  
Zapatuan, 16:00etan,  
Arripausuetan.**EUSKAL LIGA** (gizonak)**Elorrio-Durango - Gaztedi B**  
Zapatuan, 16:00etan, Elorriko  
errugbi zelaian**Asier Bilbao Sanchez** | Bilbo, 1990 | Ukabidea Zornotza karate taldeko entrenatzailea

# “Askorentzat gerriko beltza karatearen tontorra da; niretzat, hasiera bat”

Europako txapelketako final-laurdenetara heldutako karateka Zornotzako gazteen entrenatzailea da



**> KIROLA** Joseba Derteano  
Arte martzial guztien artean karatea da izarra Zornotzan. Ukabidea taldean 15 urtera arteko ia 100 gaztetxok dihardute, eta Asier Bilbao da euren entrenatzailea. Bere ibilbideko sasoirik onenean dago gerriko beltza duen bilbotar gaztea. Iaz Espainiako txapelketan brontzezko domina irabazi zuen eta Europako txapelketako estreinaldian finalerdietara sailkatzeko borrokan kanporatu zuten.

Karatea erakustea ala zeu lehiatzea, zer gustatzen zaizu gehiago?  
Desberdinak dira. Gazteei nire ezagutza transmititzea asko gustatzen zait. Apurka konfiantza hartzen dutela ikustea eta horrek bizitzako beste alderdi batzuei aurre egiten laguntzen diela sentitzea asebeste egiten nauen sententzia da. Arlo pertsonalean, irakasten dudana neure buruari aplikatzen saiatzen naiz. Nire helburua ez da munduko txapelduna izatea, gaur atzo nintzena baino apur bat hobea izatea baino.

Ematen du helburu hori lortzen zabilzala. Iazko azaroan Europako txapelketan parte hartu zenuen Grezian, eta final-laurdenetara heldu zinen. Iazkoa nire ibilbideko urterik onena izan zen, duda barik. Espainiako txapelketan domina bat irabazi nuen lehenengoz eta Europakora sailkatu nintzen. Ez neukan helburuen artean eta ilusio handia egin zidan. Txapelketan apur bat urduri egon nintzen.

Espero zenuen hain aurrera heltzea?  
Ez, inondik inora. Txapelketaren aurreko gauean dudak agertu nizkion anaiari. Baina gero pentsatu nuen zer galdurik ez neukala eta txapelketa lasai hartu behar nuela. Txanda bi gaingitu eta hirugarrenean kanporatu ninduten. Egia esan, ezin dut gehiago eskatu nire lehen parte hartzean.

Noiz eta zelan batu zinen Zornotzako Ukabidea taldera?  
Urte eta erdi daramat. Karate ikastaro batean Iñaki Calvo ezagutu nuen eta Ukabidea tal-

deko gaztetxoak entrenatzea proposatu zidan. Egia esanda, oso pozik nabil. Bost eta hamabost urtera arteko 90 bat gaztetxo ditugu.

Aurretik entrenatu izan dituzu gazteak?

Bai, Ortuellako talde batean eta ikastetxe batean aritua naiz. Gustatzen zait erakustea, baina ez borroka ikuspegitik bakarrik. Karatea borroka baino gehiago da, sarritan kanpotik ikusten ez den arren.

Zer da ba ikusten ez den hori? Umiltasuna, sakrifizioa, nork bere helburuak jarri eta lortzeko ahalmen mental hori... balio asko ditu.

Nondik datorkizu karaterako afizioa?

Etxetik. Anaia karatean dabil eta aita judoan ibili zen lehenengo, eta karatean, ostean. Nik euren eraginez ezagutu nuen mundu hau. Bost urte gaz klaseak hartzen hasi eta apurka zaletu egin nintzen. Gaur egun ez dut nire bizitza karate barik imajinatzen. Nire pasioa

da. Gimnasioan sartzean ahaztu egiten ditut arazoak.

Gaitza da gerriko beltza lortzea?

Apur bat neurritz kanpo baloratuta dago. Jendeak uste du gerriko beltza karatearen tontorra dela. Nik ez dut horrela ikusten. Gerriko beltzak ez du ezer esan gura. Nire ustez, hasiera bat da, karatea benetan ezagutzen hasteko abiapuntua.

Horrek ez du esan gura gerriko beltza lortzea erraza denik. Jakina. Lan handia eskatzen du, baina konstantziagaz lortu daiteke. Diziiplina, lan fisikoa eta kontrol mentala eskatzen ditu. Lan mentala oso garrantzitsua da.

Ukabidea karate taldea ez ezik, Ukabilak arte martzial mistoen taldea ere baduzue. Inoiz pentsatu duzu bide hori lantzea?  
Praktikatu izan dut, eta oso dibertigarria da.

Dibertigarria? Nik beste adjektibo batzuekin deskribatuko nuke modalitate hori. Niretzat dibertigarria da. Kontuan hartu behar da entrenamenduetan sekula ez dugula indar guztia erabiltzen. Oso kirol konpletoa iruditzen zait: jo egin daiteke, arerioa lurrera bota, heldu... denak balio du. Beraz, sekula ez dakizu borroka zelan garatuko den. Mundu hau ezagutzen jarraitzea gura dut. Beste kontu bat da borrokaldi ofizialak egitea. Beste lan bat duzunra beti ubelduekin edo sudurra apurtuta agertzea ez da gustagarria.

Urte gutxian oihartzun handia lortu duen kirola da. UFC txapelketako Conor McGreggor, esaterako, boxeoko beste edozein izar bezain ezaguna da. Nire erreferenteetako bat da. Oso borrokalari ona da, baina, batez ere, bere prestakuntza mentala gustatzen zait. Borrokaldiak irabaziko dituela kontzentzitatea egoten da, eta konfiantza handia du bere buruarengan. Baina, aldi berean, galtzeari ez diola beldurrik dio.



# ASBk, DRTk, federazioak eta udalak gaitzespen bateratua egin dute iazko erasoen inguruan

Idatzi bateratu batean “horrelakorik berriro gertatu ez dadin” lan egiteko konpromisoa hartu dute



Durangoko Rugby tabernan gertatu ziren erasoak.

**> ERRUGBIA** Joseba Derteano Durangoko neska batzuek eraso matxistak jasan zituzten iazko irailean AS Bayonaise (ASB) errugbi taldeko jokalariek batzuen partetik. Erasoak Rugby tabernan gertatu ziren, DRTren eta ASBren lagunarteko partidu baten ostean. Orain, Euskadiko Errugbi Federazioak idatzi bat helarazi du. Testu hori Durango Rugby Taldeko, AS Bayonaise taldeko, Durangoko Udaleko eta errugbi federazioko ordezkariak adostu eta sinatu dute.

Gertatu ziren bezalako erasoek errugbiaren izena “zikintzen” dutela eta “sekula berriro

ez direla gertatu behar” jasotzen du testuak. “Horrelako jazoerek kezka handia eragiten digute”, gehitu dute. Testuaren sinatzaileek “konpromiso irmoa” hartzen dute euren inguruan horrelako jarrerak “desagerrazteko, eta prebenitzeko baliabideak sustatzeko”.

ASBk erasoak egin zituzten jokalariek kontrako “diziplinazko neurriak” hartu dituela diote eta horrelakorik errepikatu ez dadin “neurriak hartuko dituzte”. Horregaz batera, erasoak jasan zuten emakumeei “barkamen publikoa zein pribatua” eskatu dietela azaldu dute.

## ADITUAREN TXOKOA

**OIHANA AZKORBEBEITIA**

Mendi lasterketak



### Neguan, mendia ala asfaltoa?

Heldu da negua eta berarekin batera hotza eta euria. Urtaro honetan, euria bota eta bota ari delako edo egundoko hotza egiten duelako, ez da batere erraza izaten mendia aldera korrika egitera irtetea. Leihotik begiratu, eta kanpoan eguraldi ilun, petral eta triste nagusi dela ikusita, nekeza izan ohi da etxeko epeltasunetik irten eta besterik barik euripean eta lupetz artean plisti-plasta korrika hastea.

Niri, egia esan, gustatu egiten zait neguko eguraldi kas-karra entrenatzeko, baina, zoritxarrez, askotan ez da giro izaten mendia aldera joateko. Tontorren batera joan beharrean, inguruko auzo eta pistetan ibiltzen naiz hilabete hauetan. Ez naiz asfalto zalea edo errepidea sarri zapaltzekoa. Urte asko egin nituen atletismoan eta nekatuta bukatu nuen asfalto zein porlanarekin. Neguan, baina, askotan ez da aukera askorik izaten, eta astean zehar kilometro batzuk egiten ditut zoru gogorrean.

Aurten, lehenengo aldiz, urteko azken entrenamenduak aprobetxatzeko-edo, errepideko lasterketa batzuk egitera animatu naiz. Durangon, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna zela-eta antolatutako lasterketan eta Joseba Jaka Memorialean. Baita Gabon Zaharrez Azpeitian jokatuako San Silbestre lasterketan ere. Mendian korrika egitera ohituta nagoen arren, espero baino hobeto eta gusturago aritu nintzen asfaltoan, emaitza politikak lortuta. Bateragarriak direla esango nuke.

## Zalduak kromo bilduma atera du jokalariekin

Zaldibarko hainbat tabernatan eskuratu daitezke

**> FUTBOLA** J.D.

Zaldua futbol taldeak bere jokalariek eta lankideak erretraturik agertzen diren kromo bilduma bat atera du. Euro batean salgai jarri dute kromo pakete bakoitza Solobarrian, Zaldibarko Ostargin, Imendian eta Gure-Lekun.

Zaldibarko futbol klubak Cromogal enpresagaz batera atera du 2016-2017ko kromo bilduma. Enpresa honek Europako hainbat taldegaz lan egin du bilduma pertsonalizatuak egiteko. Ekimen honen bitartez, klubaren balioak indartzea bilatzen dute.

## Ariznabarreta da favorito Bizkaiko kros txapelketan

**> KROSA** J.D.

Domekan Bizkaiko kros txapelketa jokatu dute Abadiñon. Gizonetan hutsune handi bat egongo da aurten: Bizkaiko hainbat txapel dituen Dabid Garcia durangarrak ez du parte hartuko, lesio baten ondorioz. Horrela, Oier Ariznabarreta herrikidea da, iaz irabazita, txapela berriz janzteko favoritoa. Garciak asteon jakinarazi

du eskafoide haustura bat duela oinean, eta hainbat hiletarako baja izango dela. Emakumeetan Iraia Garcia zornotzarra eta Gurutze Frades iurretarra dira hautagai nagusiak.

Trinkete atzealdeko landetan antolatu dute zirkuitua. Kadeteen proba da lehenengo, 10:00etan. Emakumeena 12:05ean hasiko da, eta gizonena 13:00etan.



Azken urte bietako Bizkaiko txapelketak Berrizen jokatu dituzte.

## Berrizko pilota txapelketan finalak jokatu dituzte

Uribarri anaiak omentzeko ekitaldia ere izango da

**> PILOTA** J.D.

Berrizko San Antonio pilota txapelketako finalak jokatu dituzte gaur, 21:00etatik aurrera. Lehen mailako finalean Asier Berasaluzek eta Luken Barrainkuak Ibai Gerenabarrenaren

eta Gorka Otaduyren kontra jokatu dute.

Aurretik beste maila bitako finalak jokatu dituzte. Bigarren mailakoan Angiozar-Urbieta eta Arberas-Martinez bikoteen artean dago txapeliduna.

Hirugarren mailako finala Alberdi-Eguren eta Agirrebeitia-Urbe bikoteek jokatu dute.

**Omenaldia**

Gaurko jaialdia Felix eta Juanito Uribarri anaiak omentzeko ere baliatuko dute antolatzaileek. Izan ere, urte asko eman dituzte biek Oizpe pilota elkarreko gazteak entrenatzen, eta egindako lan hori eskertu gura diete omenaldia eginda.

2017. urterako txartelak berritu behar dira  
Urtarrilaren 31a baino lehen

**Iurreta**  
Ereizateko Udala



**ALOKAIRUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotarixuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

**DURANGO.** -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m<sup>2</sup>-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txaleta 1.200 m<sup>2</sup>-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** B° Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ.** Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

### ETXEBITZAK SALGAI

#### FRANCISCO IBARRA



• 101 m<sup>2</sup> erabilgarri dituen etxebizitza: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun eta 2 balkoi handi. Berogailua eta igogailua. **242.000€.** €

#### HERRIKO GUDARI



• 100 m<sup>2</sup> -ko etxebizitza. Egokia umeak dituen familia batentzat. Ezkurdiko parkearen inguruan. 3 logela, saloia, egongela, sukaldea, 2 komun eta balkoia ditu. Prezioan barne 12,50 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garajea. **225.000€.**

#### BARRENKALE



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. 3 balkoi. Guztia berriztatua. **190.000€.** €

#### GOIENKALE



• Dotorea! Logela bat, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Guztia jarrita. **139.000€.** €

#### ARAMOTZ



• 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Teilatua berritua. Instalazio elektrikoa jarrita. Egoera oso onean **109.000€** € **Negoziagarria.**

#### INTXAURRONDO



• 2 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. Oso egoera onean. **115.000€.** €

www.inmoduranguesado.com



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBITZAK SALGAI

#### LANDAKO ETORBIDEA



• 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta Garajea. **229.500€.**

#### DURANGO



• 3 logela. Komuna. Egongela. Eguzkitsua.

#### M.TORRE



• Etxebizitza altua, 93m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Esekkitokia. 2 Ganbara. Garajea. **279.000€.**

#### MURUETA TORRE



• 95m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 Komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Esekkitokia. Trastelekua. Garajea. **215.000€.**

#### MIKELDI



• APARTAMENTUA. Erdi-berria. Erdialdean. Dena kanpora begira. Altua. Ganbararekin. **165.000€.** €

#### MENDIZABAL



• 4 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Ganbara eta Garajea itxia. **267.000€.** €

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK  
ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.**  
www.inmoetxetxo.com



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urtarrilaren 13an, 22:00etan,  
Elorriko Arriolan

## Desde aquí veo sucia la plaza

Club Canibal antzerki talde madrildarraren antzerki obragaz ekingo diote 2017ko Arriola antzokiaren programazioari. Font García, Vito Sanz eta Juan Vinuesa aktoreak jardungo dira oholtzan, tradizioaren eta aurrerabidearen arteko talkari buruzko obran.

### Musika

#### :: ELORRIO

URTARRILAREN 20an

22:30ean, Eraso + Humus, Gaztetxean.

#### :: ZORNOTZA

URTARRILAREN 13an

23:00etan, IV. Maketa Lehiaketa: Maniokinak, Nada eta The Van taldeak, Zelaian.

### Antzerkia

#### :: ABADIÑO

URTARRILAREN 14an

20:00etan, 'Frida Kahlo: viva la vida', Errotan.

#### :: DURANGO

URTARRILAREN 15ean

19:00etan, Jainko basatia, San Agustin kulturgunean.

#### :: ELORRIO

URTARRILAREN 13an

20:15ean, Skizopoziks, Gaztetxean.

22:00etan, Desde aquí veo sucia la plaza, Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

URTARRILAREN 14an

18:00etan, Kaput, Zornotza Aretoan.

URTARRILAREN 20an

21:00etan, Frankoren bilobari gutuna, Zornotza Aretoan.

### Jaiak

#### :: IURRETA (Bakixa)

URTARRILAREN 19an

21:00etan, Donien Atxa jasotzea eta txokolatada.

URTARRILAREN 20an

12:00etan, meza.

18:00etan, igel txapelketa.

21:00etan, bertso afaria Eneko Abasolo 'Abarkas', Gorka Lazkano eta Igor Galarzagaz. Jarraian, Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuk kontzertuan.

### Kontalaria

#### :: ABADIÑO

URTARRILAREN 18an

18:00etan, Miren Erdoiza, Udal Mediatekan.

#### :: IURRETA

URTARRILAREN 20an

17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora), Dorleta Kortazar, Bibliotekan.

### Erakusketa

#### :: BERRIZ

OTSAILAREN 4ra arte

Edu Locomotororen erakusketa, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

URTARRILEAN

Javier Minaren 'Circus mundi' erakusketa, Museoan.

#### :: ELORRIO

URTARRILAREN 30era arte

Sergio Saezen 'Orfeo & Eurifice', Iturri kultur etxean.



#### :: BERRIZ KULTUR ETXEA

### Un monstruo viene a verme

. barikua 13: 18:00

#### :: DURANGO ZUGAZA

### Underworld: guerras de sangre

. barikua 13: 19:30-22:00  
. zapatua 14: 17:00  
. domeka 15: 16:30-19:00-21:15  
. astelehena 16: 18:30-21:00  
. martitzena 17: 20:00

### Tenía que ser él

. barikua 13: 19:30-22:00  
. zapatua 14: 17:00-19:30-22:30  
. domeka 15: 16:30-19:00-21:15  
. astelehena 16: 18:30-21:00  
. martitzena 17: 20:00  
. eguaztena 18: 20:00

### Vuelta a casa de mi madre

. barikua 13: 19:30-22:00  
. zapatua 14: 21:00  
. domeka 15: 21:15  
. astelehena 16: 18:30-21:00  
. eguaztena 18: 20:00

### iCanta!

. zapatua 14: 18:30  
. domeka 15: 18:30

### Orm elurretako erresuma

. zapatua 14: 16:30  
. domeka 15: 16:30

#### :: ELORRIO ARRIOLA

### Bar Bahar

. zapatua 14: 20:00  
. domeka 15: 20:00  
. astelehena 16: 20:00

### Vaiana

. domeka 15: 17:00

#### :: ZORNOTZA ZORNOTZA ARETOA

### Silencio

. barikua 13: 20:15  
. zapatua 14: 22:00  
. domeka 15: 20:00  
. astelehena 16: 20:15

### Axel heroi txikia

. domeka 15: 17:00

### El último verano

. martitzena 17: 20:15

## URTARRILEKO AGENDA

13

**IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA**  
BULARRETIK MINTZORA: irakurketa kluba  
17:00 3-5 urtekoak.  
18:00 Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak.

16

**IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA**  
PAPERREZKO HEGOAK: haurrentzako irakurketa kluba  
25 IPUIN MOTZ / TXABI ARNAL  
17:00 L.H.-ko 5. maila.  
18:00 L.H.-ko 6. maila.

17

**IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA**  
Euskara eta gaztelaniazko irakurketa klubak  
17:30 Vera Candidaz dakidana / Veronique Ovalde.  
19:00 Carol / Patricia.  
**ANDEREBIDE ELKARTEA - Ibarretxe Kultur Etxea**  
18:00 Bideoforuma - "Paulette" - El postre de la alegría.  
(Eskarne Larrinaga)

19

**IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA**  
18:30 Irakur-lagunak kluba (Guraso eta hezkuntzako profesionalentzat) - Aldez aurretik izena eman.  
**BAKIXAKO JAI BATZORDEA**  
21:00 Jaietxer hasiera emateko Donien Atxa jasoko da. Jarraian txokolatada.

20

**IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA**  
Haurrentzako ipuin kontalaria - Dorleta Kortazar  
17:30 3-4 urteko haurrak lagunduta.  
18:00 5 urtetik gorako haurrak "Heldu eskutik".  
**BAKIXAKO JAI BATZORDEA**  
12:00 Meza santua. Egunean zehar "Txomin belarra" trikitilariak giroa alaituko dute.  
18:00 Igel txapelketa.  
21:00 Bertso Afaria - Abarkas, Lazkano, Igor Galarza, Jarraian, Rock Taldea - "Txapito Guzman eta Ibarako langostinuk".



Urtarrilaren 14an, 20:00etan, Abadiñon

## Frida Kahlo

Irailean Durangoko San Agustinen estreinatutako zuten antzezlanaren ikusteko aukera eskainiko dute, bihar, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Paco Obregonen zuzendaritzapean, Rosa Martínez-Alcocer durangarrak dihardu Frida Kahloren pertsonaia antzeztzen.



**> BOTIKAK****BARIKUA, 13**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**ZAPATUA, 14**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-13:30

**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Olxoa 6 - Elorrio**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoin**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 15**  
09:00-09:00**Irigoin**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Guarrochena, Lide**  
Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 16**  
09:00-09:00**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 17**  
09:00-09:00**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**EGUAZTENA, 18**  
09:00-09:00**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**EGUENA, 19**  
09:00-09:00**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Telmo (659. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.**> Urtarrilaren 4an Mila Laucirka** Oromiñokuek urtiak bete ebazan. Zorixonak, amama.**> Mikele** urtarrilaren 2an hamar urte bete ebazan. Zorionak etxeko guztien partez eta zaren modukua izeten jarraitu.**> Zorionak**, etxeko printzesa! Jarraitu beti bezain alai! Muxu handi bat etxekoen partez.**> Zorionak** Bilboko printzesa! Jarraitu beti bezain alai! Muxu bat etxekoen partez.**> Alabatxi**, ze diñozu ba? Zorixonak miss Urkixo 23 meneo zoro lokaleko funky neska sexyenarentzat, mosu ekologiko bat!**> Kuadrillako bikote** polit, laztan, gozo, samur eta melosuenak 23 urte bete doskuz! Inguruko kalamidade guztixen partez, zorixonak.**> Zorionak, Katrintxu!** Gure etxeko sorgintxue, muxu zopa bat etxeko guztixen partez. Mua, mua eta mua. Jarraitu horren maitagarri!**> New York-ez** gozaten eta enbidixa asko emoten dabilen gure "Chikagari", lokaleko morrosk@ guztixen partez zorixonak eta mosu oker bana. Maite zaitugu, loka!**> Abenduaren 20an, Nahiak** 10 urte bete ditu, zorionak. Txan dan fogou!**> Anartzek eta Garazik** urtarrilaren 4an eta 12an 7 eta 13 urte egin dituzte. Zorionak Irati, Helene, Uxue, Eihar, Urko, Maier, Peru, Mikel eta Nilen partez! Mosu bana, bikote.**> Zorionak**, hirukote! Urtarrilaren 11en **Intzak** 8 urte eta aitatzok 31 gehixau eta urtarrilaren 10ien **Iratik** 5 urte ein dabiez. Muxu potolo bat Inhar eta amatxon partez, pila pila maite zaittuegu!**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarriaODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIKMuruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - [uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

**A. Urreaga podologia**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



## “Suhiltzaile lana oso gogorra da eta antzerkiak bizipoza ematen dit”

‘Suhiltzaile izan nahi dut’ ikuskizunean parte hartu zuen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Suhiltzailea da ofizioz, eta antzerkia du pasio. Maiatzean hartuko du erretiroa lanetik. Antzerki munduan Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz kolaboratu du Josu Presak. Sudur gorriak barruan duen hori ateratzeko aukera ematen diola dio, eta antzerkiak “ogibide hau eramateko beste modu bat”.

Suhiltzailea zara ofizioz eta antzezlea afizioz. Bai! Suhiltzailea izatea da nire bizitza. Asko maite dut ogibide hau. Hala ere, gure lana oso gogorra da, oso egotza larriak bizi ditugu, eta antzerkiak bizipoza eman dit; ogibide hau eramateko beste modu bat. Mendia, antzerkia eta pilota ere asko gustatzen zaizkit. Pilotan ibilia ere banaiz, afizionatu mailan, 20 urte nituenan.

Zenbat urte daramatzazu antzerki munduan?  
Lagun talde batek Landaberri antzerki taldea —orain, Kukuka— sortu genuen duela 15 bat urte, Lasarten. Tarteko zegoen baita Joxe Mari Agirretxe ‘Porrotx’ ere. Orduan sartu nintzen ni antzerki munduan.

Orduan sortu zen Pirritx, Porrotx eta Marimototsegaz duzun hartu-emanaz?  
Takolo, Pirritx eta Porrotx zirenean sortu zen gure arteko harremana. Gogoan dut Bilbao Exhibicion Cente-



rren (BEC) ikuskizuna grabatu zutenekoa. Atzean, figurante moduan parte hartu genuen antzerki eskolakook. Itzela izan zen. Beteta zegoen. Gero, *Ilargiaren sekretua* (2004) filmean ere parte hartu nuen. 15 segundo agertzeko, egun osoa behar izan genuela gogoratzen dut!

Dena den, Donostiako suhiltzaileekin grabatutako *Suhiltzaile izan nahi dut* (2007) ikuskizuna izan da niretzat garrantzitsuena.

**Horretan ere parte hartu zenuen?**

Bai, Donostiako suhiltzaileekin batera. Umeei suhiltzaileon lana erakusteko ikuskizuna izan zen. Gure lana ulertzeko modua ere izan zen hura. Nola itzaltzen dugun sua, ateak irekitzeko modua, uretako erreskateak... erakusten da ikuskizunean.

**lurretako suhiltzaile-etxean lan egiten duzu. Hala ere, erretiroa hartuko duzu maiatzean. Sudur gorri moduan ere bai?**

Aurten, apur bat alde batera utzi dut antzerkia, baina ez dut uste antzerkia inoiz utziko dudarik.

**Zer da sudur gorria, ba, zuretzat?**

Beste norbait izateko aukera ematen du sudur gorriak, barruan duzun hori ateratzeko aukera. Inauterietan moztuak beste norbait bihurtzeko aukera ematen duen moduan. Gainera, esan behar da, mas-

kara gisa, bizkarra emanda jarri behar dela sudur gorria; baita kendu ere. Oso irakasle onak izan ditut nik: Joserra Fachado izan dut irakasle 10 urtean. Gerora, Miren Gojenola ere bai.

**Berezia, hunkigarria izango da umeekin lan egitea...**

Umeak ez daude kutsatuta. Dena sinesten dute. Suhiltzaile-etxera etorri izan direnean ere jarri izan dut sudur gorria, eta hemen dugun bizikleta zahar bategaz jardun dut eurekin. Suhiltzailea kaskoagaz eta sudur gorriagaz ikustean aho zabalik geratzen dira. Beraiek zer sentitzen duten? Eurei galdetu behar. Hala ere, antzerkiko arlo asko landu ditut.

**Zeintzuk?**

Sudur gorria antzerkiaren alde bat da. Drama, salaketa antzerkia, maskara edo absurdoa ere egin ditut. Azken hori da gehien gustatzen zaidana.

**Zeintzuk izan ziren zure haurtzaroko pailazoak?**

Miliki, Fofu, Fofito... harek zeuden orduan. Hala ere, asko aldatu da dena. Orain, abaniko zabala dago antzerki munduan, eta jende oso ona dago.

**Zer dute Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek halako arrakasta izateko?**

Ez dakit, ba! Gauza batzuk ezin dira esan, sentitu egiten dira. Beraiek direlako dute arrakasta, transmititzen duten energia positiboa, maitasuna, irribarrea.. Gainera, gai sozial asko lantzen dituzte eta elkarte askoz egiten dute lan.

## LAUHORTZA

**JON ANDER RAMOS**

Historialaria



### Euskara

Zaindu maite duzun hori, dio Ruper-en abestiak. Eta hala ikasi nuen orain urte batzuk ama hizkuntza ez nuen euskararen “gaitasuna” edo abilezia hartzea erabaki nuenean. Bai, euskaltegitik pasatua naiz ni. Baina ez sufritu duen horietakoa, kontrakoa baizik: euskara maitatzen ikasi zuenetarikoa. Ez nator gaurkoan euskararen balioaz mintzatzera, euskararen munduan behin eta berriz izorratzen duten horiez berba egitera baizik. Urquijo ez dut ezer esango (bejondeiola!), gaizki pentsatuak ez izan, baina politika adibiderik onena ez dela agerikoa da, ikusi Legebiltzarrara, bestela. 80 urte pasatu dira lehen euskal gobernutik, baina euskararen alorrean batzuek Platonen haitzuluan dihardute oraindik. Legebiltzarkidea izateko ez da inongo gaitasunik frogatu behar, hizkuntzakoa ez behintzat. Pentsa, orain urte batzuk Lehendakari “ez gaitua” izan genuen eta.

Baina ez dugu Gasteizera salto egin behar, gurean euskarak pairatzen dituenak ere ugariak dira. Azken aldirian gertu sentitu dut hori. Euskaldun berria izateko ahaleginak egiten dabilena, egunerokotasunean euskara erabiltzen saiatzen den hori, Durangoko Udalera, kostata, baina oharra euskaraz igorri eta beste aldetik gaztelania hutsean erantzuna jaso. Hiztegia hartu eta egoera surrealista hori definituko zuen hitza topatzen hasi zen. Laguntzarekin, eta euskarari minutu batzuk eskainiz, bat baino gehiago topatu genituen: lotsagarri, ahalkegarri edota ahalketzaile. Zein aukeratu ez dit axola, bai ordea udalaren jarrrera euskararekiko.



**CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako irakaskuntza ofiziala

**MATRIKULA**





**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**

- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako eta Unibertsitaterako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Asteleheneretan, asteartetan eta ostegunetan: 09:00-13:00 / 16:00-18:00. Asteazkenetan eta ostiraletan: 09:00-13:00

**MATRIKULA ZAITEZ**  
946 814 253  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**MATRIKULA-EPEA:** Urtarrilaren 16tik otsailaren 3ra